# Goierritarra

240. zenbakia 2003-5-10

**Legorretako araztegia eta Zegamako Industrialdea inauguratu dira**

**Igartzako burdinolaren aztarnak**

**Udal hauteskundeak**

**Ataungo mendi ibilaldia**

**Zaldibiako euskara aztergai**

## Bisoi europarra Goierrin









Goierriko automobil mundua, eta zehazki todo terrenoen sektorea, zorioneko dago

# Eurolan 4x4-k

## zerbitzu berria ireki du Goierrirako:

# ANZIZAR

Iritxi zaigu goierritarrok eskura izango dugun Land Rover zerbitzu baimendu berria: ANZIZAR. Beasain- Zumarraga errepidean kokaturik, tododterrenoen munduan erreferentzia puntu bilakatzea dugu helburu.

Hau lortzearren, beharrezko diren makinariaz eta giza-baliabidez hornituta gaude. 25 urte baino gehiago mundu honetan martxan ihardun duen enpresa batek eskeini dezaken berme guztiarekin. Azken finean, bezeroen beharrak ahalik eta modu egoki eta onenean betearazteaz arduratuko gara. Tratu jator eta guztiz pertsonalizatua eskeintzea da gure desioa.

Alde batetik, Land Rover modelo guztien erakustokia daukagu, bertan gure kotxeek dituzten ezaugarriak ikusteko aukera izango da. Beste aldetik, tailer moderno batek eman ditzakeen erantzun onenak jasotzeko posibilitatea ematen da.

Laburbilduz, gure instalazioetan munduan dauden todoterrenorik onenez gozateko aukera izango da, eta guzti hau gozagarriagoa izan dadin, giza multzo kulalifikatu nahiz teknologia maila gorenak daude eskuragarri.


**ANZIZAR**

Beasain-Zumarraga
errepidea

Tel.: 943 88 17 00

www.anzizar.com





LAND ROVER

**Goierritarra**
**HAMABOSTEKARIA**

**Argitaratzailea:**
Goierritarrak Kultur Elkartea
**Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)**
**124 posta-kutxa ORDIZIA**
**Tfnoa: 943 88 96 12**
**Faxa: 943 88 27 19**
**Posta elektronikoa:**
**goierritarra@topagunea.com**

**Zuzendaria:** Loinaz Agirre
**Maketazioa:** Mikel Albisu
**Publizitatea:** Argider Mujika

**Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:** Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Edurne Soraluze, Agurtzane Bikuña, Aitor Tello, Aimar Maiz, Zelai Amenabarro, Iñaki Gurrutxaga, Beasaingo Ikastola.

**Fotokonposizio eta maketazioa:**
**Goierritarra**
**Inprimaketa:** Gertu (Zubillaga 9. Oñati)
**Tirada:** 7.000 ale
**SSN:** 1132-0907
**Lege gordailua:** SS-926/89
**Frankeo kontzertatua:** 37/76

***GOIERRITARRAk ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.***

*Eusko Jaularitzako Kultura Sailak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta* ***GOIERRIKO UDALEK*** *diruz lagundutako aldizkaria*




# Legorretako araztegia inauguratu da

## *Goierriko Oriako ibaiko urak garbituko dira*

Apirilaren 30ean inauguratu zen Legorretako Gaikaoko ur araztegia. Gipuzkoako Diputatu Nagusia, Roman Sudupe, buru zela, egin zen ohiko zinta mozketa.

Ezkio-Itsaso, Ormaiztegi, Segura, Idiazabal, Olaberria, Beasain, Ordizia, Lazkaoko, Ataun, Zaldibia, Arama, Altzaga, Itsasondo eta Legorretako hondakin urak saneatuko ditu Legorretako araztegiak. Etxeetako eta industriako urak garbituko ditu Gaikaoko araztegiak. Egunero 4.600 kilo solido, 2.500 kilo materia organiko, 455 kilo amoniako eta 57 kilo fosforo, olio, hondar... eliminatuko dira bertan. Behin araztegira iritsitako urari hondakin solidoak eta lohia kentzen zaio lehenengo fase batean. Bigarren fasean edo ekologikoa deitzen zaionean, airearen injekzioaren bitartez, metabolizaziorako bakteria egokiak gehitzen zaizkio urari kutsadura desagertzeraino. Hortik, berriz ere, ura Oria ibaira botatzen da ur garbia.

Ur garbiketaren ondorioz sortzen den lohia, araztegian bertan tratatzen da eta ondoren, Sasieta zabortegira eraman.

Koruko Aizarna Obra Hidraulikoetako eta Hirigintzako Departamentuko foru diputatuak adierazi zuenez, *"Oria garaiko biztanleen bizitza kalitatea hobetzen lagunduko du, uren kalitate hobeago bat lortuz. Gure ahaleginak abere-ekosistema eta flora euren onera ekartzeko jarri ditugu, azken belaunaldiek ahaztu dituzten kirol arrantza eta ur kirolak indartuz".* 1999 eta 2002 urte bitartean egin dira lanak eta 28 milioi euroko aurrekontua izan du.


**Goierritarra Goierriz kanpo jaso nahi dutenenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:**

| | |
|---|---|
| Hego Euskal Herria eta Espainia: | urtean 12 euro |
| Ipar Euskal Herria eta Europa: | urtean 24 euro |
| Europaz kanpo: | urtean 36 euro |



## Artzain eguna Ordizian

Apirilaren 23an ospatu zen Artzain eguna Ordizian. Asteazkeneroko azokan, artzainak eta Idiazabal gazta izan ziren protagonista. Eguraldia lagun, jende ugari hurbildu zen Ordiziara.

### Idiazabal Gazta berria

Egun hau aprobetxatzen dute Idiazabal Gaztakoek gazta berriari ongi etorria egiteko. Zortzigarren urtea da ekitaldi hau egiten dutela. Tafallako Tubal jatetxearen jabe den Atxen Jimenez izan zen gazta berria ebaki zuena eta dastatzen lehena izan zena. Udaletxeko batzar aretoa jendez gainezka izan zen.

### Gazta egile sarituak

Ekitaldi berean, gazta egileak ere saritu ziren. Kalitatea eta erregulartasuna saritzen ditu Ordiziako udalak. Artzain onenaren saria Araiako Gereñuk jaso zuen. Gaztandegi ertainen artean, Elena Elizalde saritu zuten eta egile handien artean, Olaztiko La Vasco Navarra gaztandegia.

### Omenaldia Mikel Zeberiori



Ataungo Mikel Zeberio izan zen eguneko omendua. Gastronomiarekin eta gaztarekin lotura zuzena duena, artzainaren, latxa ardiaren eta Idiazabal Gaztaren defendatzaile sutsua berau.

## Ertaroko azoka

Hurrengo azoka berezia, ertaroko azoka izango da, asteburu honetan, maiatzaren 10ean eta 11n. Ordiziako kronikan duzue informazio zehatzagoa.



## Bartzelonako Euskal Etxeko euskara ikasleak Maizpiden

Apirilaren 14tik 21era bitartean, Bartzelonako Euskal Etxeko 2. eta 3. mailako 13 euskara ikasle eta bi irakasle izan ziren Lazkaoko Maizpide euskaltegian. Euskara hobetu eta Euskal Herria ezagutzera etorri ziren. Ikasle gazteak, gehienak Katalunia bertakoak. Erromatar bat ere bazen tartean. Bartzelonako Euskal Etxean, 110 ikasle ari dira euskara ikasten.



## X. Gerriko ikerlan-bekaren fruitua kalean: bisoi europarra Goierrin

Apirilaren 11n aurkeztu zen X. Gerriko ikerlan-bekaren emaitza: 'Bisoi europarra (Mustela lutreola, L.), mundutik desagertzeko arriskuan dagoen karniboroa Goierrin'. Iñaki Irizar, Idoia Villate, Jorge Gonzalez eta Nere Amaia Laskurainek osatutako taldeak, Goierrin egindako bisoi europarrari buruzko ikerketa lanaren emaitza da. 10 eta 11 orrialdeetan, bisoi europarrari buruzko informazioa duzue, Iñaki Irizarrek emana.

Joxi
Iturgintza - Berogintza - Gasa
Carrefour merkatalgunea
Tel. - faxa: 943 88 19 87 - 676 178 488
OLABERRIA

Aholkularitza
ASEPLAN
Abokautak - Ekonomilariak
Tel.: 943 887 129
Oriamendi Kalea 15, behea BEASAIN

✓ Enpresen asesoria eta gestioa
✓ Etxebizitza salerosketa
✓ Etxeko jabekideen administrazio-lanak
etxekin



*Nikolas Osinalde, Goiturreko ordezkaria:*

## "Nekazalturismoko etxeak eta hotelak beteta izan dira Aste Santuan"

Turista kopuru zehatzik ez badago ere, bisitariak iaz baino askoz ere gehiago izan dira aurtengo Aste Santuan eta maiatzeko zubian. *"Jende asko ibili da Seguran eta Zerainen, ostegunean eta ostiralean, eta denak kontatzea ezinezkoa izan baita. Baina adibidez: Zerainen museoan izan direnak 500 dira eta turismo bulegoan-eta izan direnak askoz ere gehiago. Beste adibide bat: Zeraingo aterpetxean iaz 20 lagun izan baziren lotan, aurten 75 izan dira bi txandatan. Denean igo da".* Dena den, daturik garrantzitsuena Niko Osinalderentzat alojamenduarena da. *"Nekazalturismoko etxeak beteta egon dira eta lehenengo aldiz, hotelak ere bai. Aterpetxeetan ere jendea egon da".* Maiatzeko zubian ere beteta izan dira Goierriko oheak. Datu bat eman digu Osinaldek: *"Kostaldean ohea bilatzeko arazorik egon ez den bitartean, Goierrin dena beteta zegoen".*

Arrakastaren sekretua zein den jakiterik ez dago Osinalderen ustez, baina ormaiztegiarrak argi dauka, *"jendeak zenbat eta informazio gehiago eduki, orduan eta gero gehiago saltzen da. Azkeneko zabalkundea Donostian egin genuen eta hori nabaritu da. Donostia aldetik jende asko etorri da. Bizkaitik ere bai".* Argazkia, Donostiako standekoa da.

Dena den, turisten jatorriari dagokionean, gehienak, ohi bezala, kataluniarrak izan dira; madrildarrak ere bai. Valentzia, Murtzia, Gaztela Leon, Frantziatik ere etorri dira. Beste datu bat: datozen egunetan, 20 laguneko estatubatuar talde bat etorriko dira Goierrira. *"Jendeak senderismoa eskatzen du, bazkari batekin amaitzeko".*

### Hitzaldia

Maiatzaren 21ean, arratsaldeko 5etan, Ordiziako Goiekiko areto nagusian, 'Gestion de la calidad en el servicio turistico: concpeto de calidad, aspectos clave de un sistema de calidad y los costes de la calidad' hitzaldia izango da, Deustuko Unibertsitateko katedraduna den Aurkene Alzuaren eskutik.



## Iñaki Apalategi beasaindarra, Osinalde bertso txapelketa irabazlea

Apirilaren 26an, Iñaki Apalategi beasaindar bertsolariak irabazi zuen Gabiriako Osinalde bertso txapelketa. Informazio gehiago Gabiriako kronikan duzue.

## Igor Etxabek Argizaiola saria irabazi du

Beasaingo Igor Etxabek Argizaiola argazki saria jaso du, txuri-beltzeko auto-erretrato obrarekin. Argizpi Elkarteko idazkaria da Etxabe. Argizaiola sarian, Euskal Herriko hainbat argazki lehiaketetan sarituak izan diren argazkizaleek pate hartzen dute.

## Borondatezko euskal gazte lankideen programa. 2003

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak eta Kultura Sailak antolatu du, Euskal Herriko gazteen arten garapenerako lankidetza-ekintzetan sentsibilizazioa bultzatzea helburu duen programa. 20-31 urte bitarteko gazteei zuzendua dago. Informazio gehiago www.euskadi.net helbidean edo 943022800 telefonoan.

## 14-17 urteko gazteentzat oporraldiak

Gipuzkoako Foru Aldundiak 14tik 17 urte bitarteko gazteentzat oporraldi ezberdinak antolatu ditu: abenturako jarduerak eta hizkuntzak ikasteko egonaldiak. Informazioa, Ordiziako Gazte Bulegoan (943805634).

Pottoka
KAFETEGIA
● Pintxo hotz eta beroak
● Ogitartekoak
Legazpi kalea, 3 ORDIZIA

LOINATZ
Taberna
Jatetxea
Bazkari, afari, ogitarteko, pintxoak
☎ 943 88 20 07
Nagusia, 27 BEASAIN

# Ataungo mendi ibilaldi neurtua maiatzaren 24an

Bi urtean behin Ataunen, 'Jentileen bideetatik' iraupen luzeko mendi ibilaldi neurtua antolatzen hasi ziren 2001. urtean. *"Gure helburua mendizaletasuna bultzatzeaz gain, Ataungo parajeak jendea erakustea da"*, diote antolatzaileek.




Aurten, duela 2 urte baino lehenago izango da ibilaldia: maiatzaren 24an, larunbatean. Era honetako probak, gehienean, igandetan izan ohi dira baina ataundarrak proba egitera datoz. Bi arrazoik bultzatuta erabaki dute aurten larunbatean izatea, Xabier Eskisabel antolatzaileetariko batek adierazi digunez: *"batek baino gehiagok esan izan digu horrelako probak larunbatetan egitea egokiagoa ote litzatekeen, igandean izanez gero astelehenean lanera joateko atseden hartzeko denborarik ez dela izaten eta. Bestetik, duela bi urteko ibilaldia San Joan inguruan izan zen eta data ez zen egokiena, beraz aurten aurreratzea pentsatu genuen. Egutegia begiratuta, hor egitea pentsatu dugu. Hauteskundeak maiatzaren 25ean direla ikusita, larunbatean egingo dugu. Proba egingo dugu aurten"*.

Ibilbideari dagokionez, zertxobait aldatu bada ere, duela bi urtekoaren antzekoa da. 10 ordu inguruko ibilaldia da. Ibilbidearen nondik norakoa adierazita egongo da. Goizeko 6etan hasiko da Auzoeta udal kiroldegitik. Taldeak 2 edo 3 lagunekoak izango dira. Partehartzaileek txartelean aipatzen diren kontrolguneetatik igaro beharko dute. Bertan janaria eta edaria izango da nahi duenarentzat.

Izen-ematea 6 euro kostatuko da eta irten aurreko ordubetean egin badaiteke ere, aurrez egitea komenigarriagoa da antolatzaileentzat. Horretarako bi bide daude: 635722027 telefono zenbakia, 12:30etik 14:00etara deitzeko eta bi posta elektroniko: dornain@euskalnet.net eta ataunjexuxirun@euskalnet.net.

*"Ibilaldia plazer izatetik inpernu izatera pasatu ez dadin"*, aholkuak eman ditu Ramon Garate Euskal Herriko Mendi Federazioko medikuak:

- Abaila erritmoa bakoitzaren gaitasun fisikora mugatu.
- Bi orduz behin jan eta edan.
- Janzkera eguraldiaren arabera egokitu.
- Motxila arina eta edukiera txikikoa.
- Oinetako egokiak.
- Botak jantzi eta ondo lotu.
- Oinen garbitasuna.
- Oina zoruari egokitu.
- Oinaren azala egokitu.
- Oinaren azala babestu.
- Oinetako babei kasu egin.



## Aitor Perez, bi egunetan bi garaipen

Aurten ere bi egunetan bi lasterketa irabazi ditu Aitor Perez zegamar txirrindulariak. Arabako Ororbiakoa eta Beasaingoa.



## Xabier Imaz, bigarren mailara jaisteko arriskuan

Segurako pilotariak bigarren mailara jaisteko ligaska jokatuko du, lehenengo partidua, Armendarizen aurka 22-9 galdu baitzuen. Ligaskan, Paskual eta Apeztegiaren aurka jokatu beharko du.

aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA
Aulia-enea
☎ 943 80 60 66 LEGORRETA

GENERALI
GENERALI
Aseguroak
IÑAKI ARIN BAZTARRIKA
Oriako Pasealekua,20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

## Rosario Imazi erantzunez

Azkeneko GOIERRITARRAN, Mutiloako Rosario Imazek esandako guzti-guztiarekin bat nator.

Erretondako seinalean Mutiloa falta zela ikusi nuen lehenengo aldian Diputazioarekin harremanetan jarri eta nire iritzi eta desadostasuna azaldu nien. Diputatuari berari ere behin baino gehiagotan azaldu diot nire iritzia (azkenekoz Etxegareteko inaugurazioan): alegia legeak lege, konponbide erraza daukala eta bi kartel aldatu eta eztabaida bukatzeko.

Baita ere neronek proposatuta, Mutiloako Udalari: 5 alkateok (Zegama, Segura, Zerain, Mutiloa, Idiazabal) sinatuta, eskaera bat egin diogu Diputazioari zentzu berean.

Hala ere esan beharrean nago gai hau ez dela Idiazabalgo Udalaren konpetentzia (gustatuko litzaiguke), baizik eta Diputazioarena. Iñaustin hasi eta Otzaurten bukatzen den errepide honen eskumen osoa Diputazioarena da eta hori dela eta udalok askotan ibili behar izaten dugu borrokan Diputazioarekin.

Arazo hau konponduko den itxaropenarekin eta Udal hau eta neroni pertsonalki dagokidan edozer laguntza edo gestio egiteko prest, agurtzen da.

***Antton Irizar Imaz (Idiazabalgo Alkatea)***

---

**Goierritarra**

Goierrin aldizkaria jasotzeko ez da derrigorrezkoa 12 euroak ordaintzea. Goierriz kanpo jasotzeko bai.

## etxean jasotzeko laguntzaile txartela

**Izen-abizenak:** ..................................................

**Helbidea:** ..................................................

**Herria:** ..................................................

**Tfnoa.:** .............................. **Adina:** .......... **NAN:** ..........................

**Kontu zenbakia (20 digitu):** ..................................................

**Bidali txartel hau helbide honetara: Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia eta posta gastuak ordaintzeko urtean 12 euro kobratuko dizkizugu kontu korrontetik Ipar Euskal Herrian edo Europan jasotzeko 24 euro ordaindu behar dira eta Europaz kanpo jasotzeko 36 euro.**

## Letren konkista

# Dislexia: zailtasun itxura duen dohaia

**Zuk ba al zenekien Leonardo da Vinci, Rockefeler, Walt Disney, Einstein... dislexiko zirena? Eta hitzen araberako adimenaz haratago irudietan oinarritakoaz baliatu zirena zer eta mundua aldatzeko? Eta hala ere, gure irakkaskuntza-sistemak eskola-porrotera lerratuko lituzkeela... Honen berri irakurri ahal izango zenuen, agian, egunotan egunkarietan.**

Beasaingo Andramendi Ikastolak ikasketetan zailtasunak dituzten ikasleei buruzko beste ikuspegi bat eskaini nahi dizue, hiru hitzaldiren bidez, maiatzaren 6an, 8an eta 15ean, arratsaldeko 6etatik 7,30etara. Hurrengo lerrotan, dislexiari buruzko hainbat xehetasun.

### Zer da dislexia?

Dislexia hitza irakurketa, idazketa, matematika, etabarren ikasketan sortutako hainbat arazo izendatzeko erabilia izan da. Baina askotan pentsatu izan ohi dugunaren aurka ez da "ikasteko ezintasuna" ez da "adimenaren gaitasun" arazoa, ezkutuan dagoen "Dohaia" baizik. Dislexia perzepzioaren aldaketa da eta honen ondorioz irakurtzeko nahiz idazteko zailtasunak izaten dira. Ez du adimenarekin zerikusirik.



*Einstein fisikari alemaniarra dislexikoa zen.*

### Zergatik?

Pentsatzeko modua bi eratakoa izan daiteke: ahozkoa -hitzen hotsen bidez- eta ahozkoa ez dena - ideia edo kontzeptuen irudien bidez. Bi moduak erabiltzen ditugu pentsatzeko baina ahozkoa ez dena azkarragoa da.

Ikasterakoan zailtasunak sortzen diren garaian, hiru eta hamahiru urte bitartean, balizko dislexikoak funtsean ahozkoa ez den pentsatzeko modua izaten du: irudien bidez pentsatzen duen pertsona da. Irudien adimena garatzen du eta zailtasun handiak izaten ditu letrak eta zenbakiak ezagutu eta bereizteko; horrelairakurketa eta idazketan etekin eskasak izaten dituzte eta honek beste gaietan ere eragina izaten du.

Irudien bidez pentsatzen duten pertsonak hitzekin eta hitzen bidez eratutako ikasketen aurrean erabat trabatu egiten dira. Ez da besterik. Zurrunbilo horretatik irtetzea lortzen ez badute, arazoak bizitza osoan iraungo die. Baina beren dohai hori askatzen bada, pertsona hauek besteek baino 400/ 2000 aldiz azkarrago pentsa dezakete

### Nola ohartu dislexiaz?

Irakurketa abiada ez da egokia beren adinerako. Hitzak errepikatu, jan edo asmatu egiten dituzte. Irakurketako ulermena eskasa da; xehetasunik ez dute gogoan izaten. Idazkera txarra izaten dute. Lanak egiten denbora asko behar izaten dute eta ez dute denbora kontrolatzen. Ordularia ezagutzea kosta egiten zaie eta baita egutegia ere. Atzo buruan hartutakoa, gaur ahaztua dute. Autoestima baxua. Irudimen handikoak dira, eta zenbait gaietarako oso onak dira: musika edo pinturarako adibidez. Askok lateralitate gurutzatua dute, hau da, oinez ezkerrak dira eta eskuz eskubiak.

### Eskola porrota

Ehundik hamabost ikaslek dislexia duela esaten da eta disfuntzio hau omen da eskola porrotaren laurdenaren arrazoia.

***Beasaingo Andramendi Ikastola***

## Dislexiaren tratamentua

"Letren Konkista" perzepzioaren autokontrolean oinarritzen den eskola da. Sortu berria da hemen, AEBn 17 urteko esperientzia dute irudi/espazio pentsamendu dislexikoa duten haur eta helduei aholkularitza, tratamentua eta zuzenketak egiten. Arabako Murgian kokatua dagoen ikastetxe honek pedagogo, psikologo, sendagile eta irakaslez osatutako taldea du eta 8 urtetik aurreako ikasleei eskaintzen die banakako tratamentua.

Lan egiteko modua honako hau da: haurrarekin astebeteko saio intentsiboa egiten dute, gurasoei aldi berean ikastaroa emanez, hauen laguntza eta babes emozionala funtsezkoa baita. Hasierako aste honen ondoren, ikastaroak urtebete irauten du, hilean behin eta beti tutore berarekin elkartuz eta bertan etxean egin beharreko lanak zuzentzen dira. Programa hauek pertsona horrek pentsatzen duen hizkuntzan egin behar dira, benetan barneratu eta automatiza ditzan. Horregatik euskarara ere egokitu dira programa hauek haur euskaldun dislexikoek ere beren tratamentu egokia izan dezaten.



# Bisoi europarra Goierrin

Bisoi europarra Europako ibai eta erreketan bizi den karniboro txikia da. Mustelidae familiako kidea da (Ipurtatsa, Erbinudea eta beste karniboro txiki ezagunen familia da hau) eta itxuraren aldetik familiako ezaugarri tipikoak erakusten ditu: gorputza luzea eta liraina du, gorputz-adarrak motzak eta abar. Emeak baino handixeagoak izaten dira arrak; arren pisua 600 eta 1.200 g bitartekoa da eta emeena 400 eta 800 g bitartekoa. Buruaren eta gorputzaren luzera 33-41 cm bitarteko izaten da. Isatsa ez da gorputza bezain luzea izaten.

Ilea nahiko motza eta marroi kolorekoa du, isatsa ea hankak sarritan ilunagoak direlarik. Ahoaren inguruan, espeziaren ezaugarri nagusienetakoa den kolore zuriko banda bat erakusten du. Bere bizitza semiakuatikoaren adierazle diren mintzak (ez osoak) dauzka behatzen artean, uretan dagoenean bere propultsioa hobetzen dutenak.

Uraren inguruan bizi da beti: paduretan, lakuetan, zingiretan eta, batez ere, ur azkarretako ibai eta erreka garbietan. Ur-bazterretan landaretza trinkoa behar du. Habia edo gordelekua ibaiertzeko zulo batean kokatzen dute sarritan; beste batzuetan gordelekua ibaiertzeko zuhaitzen sustraien artean, urak utzitako egur multzoetan, enbor lehorren zuloetan, eta baita landaretza trinkoak babestuta zuzenean lurrean ere egon daitezke, beti ere uretatik hurbil.

Espezie karniboroa eta oportunista da. Dietaren oinarria uretan zein ur-bazterretan harrapatzen dituen animaliak dira, ornodunak batez ere. Gautarra da nagusiki, baina egunez ere mugitzen da tarteka, udaberri eta udan batez ere. Neguan ez du hibernatzen. Animalia bakartiak dira eta emea estaltzeko bakarrik elkartzen zaio arra. Eme bakoitzak bere erreka zatia dauka. Errekarena kalitatearen arabera kilometro batekoa edo bikoa izan daiteke. Arraren erreka zatian bi edo hiru eme sartzen dira.

## Banaketa eta ugaritasuna

- Bertan jarraitzen duen arren, bisoia oso urria da Goierrin. 2002. urtean Gipuzkoako Bisoi europarraren populazio nagusia ala bakar batzuk osatzen dute.
- Bisoiak bi gune txikitan banatuta aurkitu dira.
- Espeziea Gipuzkoatik desagertzeko zorian egon daiteke.
- Eskualdeko bisoi europarren etorkizuna bermatzeko, Oria ibaia, Agauntza, Amundarain eta Eztanda errekak espeziearen banaketa-eremu bezala kudeatu beharko dira, bertan tarteka egongo diren populazio urri eta iragankorrak indartzeko asmoz.

## Portaera espaziala

- Bizileku linealak dituzte; ibaiari lotuta aurkitzen dira beti.
- Emeen bizi-eremuak arrenak baino txikiagoak dira; orain arteko ikerketan emeek territorialtasun handia erakusten dute.
- Beren tamaina txikiarekin konparatuz, bizi-eremuen tamaina handiak mantentzen dituzte.
- Txikiak izan arren, honelako portaera espaziala izanik, bisoiak ezin dira inoiz animalia ugariak izan.
- Ibaitik gutxi urruntzen diren arren, horrelakoetan ezohiko arriskuek animalia asko hiltzea eragin dezakete. Horregatik, ibaian gora eta behera mugitzeko oztoporik ez egotea bereziki garrantzitsua izan daiteke populazio txikiak ingurune humanizatuetan kontserbatzeko.

## Habitataren hautespena

- Bisoiak ur garbiak eta bazterretako landaredia garatua daukaten errekak aukeratzen ditu.
- Bizi den lekuetan ibaiaren berezko egiturak behar ditu: putzuak, osinak, urak utzitako enbor eta egur pilak, sahastiak, ur-bazterreko zuhaitzen sustraiak... Ibai-ekosistemako espezialista da.
- Erabat ibaikoa da bisoia eta haren kontserbazioa bermatzeko ibai-ekosistemaren osotasuna zaindu beharko da, ez bakarrik uren kalitate egokia.

***Iñaki Irizar, Idoia Villate, Jorge Gonzalez eta Nere Amaia Laskurain***
***(X. Gerriko ikerlan-bekaren irabazleak)***

***Landar Lan taldeak egindako orrialdea***

***Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44***

### LIBURUA

✔ **Bisoi europarrra (Mustela lutreola, L.), mundutik desagertzeko arriskuan dagoen karniboroa Goierrin.** Iñaki Irizar, Idoia Villate, Jorge Gonzalez eta Nere Amaia Laskurain. X. Gerriko ikerlan-beka. Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartea, Maizpide Euskaltegia eta Lazkaoko Udala.

### JAKIN BEHARREKOA

✔ **Zuhaitz baten gainean bizi daitezkeen espezieen masa bere hostoena baino handiagoa izan daiteke** batzutan. Gainean goroldio, garo, hepatika eta liken zein intsektu eta beste animalia espezie desberdin asko egon baitaitezke.

✔ **Pagoa, haritza, ametza eta artea famili berdinekoak dira,** zientzia izenez Fagaceae deiturikoa. Denak lore arrak eta lore emeak ematen dituzte zuhaitz berdinean udaberri aldera, hosto eta adar berriak irteten hasi direnean. Lore ar guztiak berehalaxe erortzen dira, emeak, ernaldu direnak behintzat, fruitu bilakatzen dira eta ez dira erortzen udazken arte. Pagoak hostoekin batera ematen ditu adaxka berriak eta ez da gehiago hazten udan zehar, beste guztiak,berriz, ia udazken arte adarrak luzatuz joaten dira.

✔ **Aforismo ekologista:** Hobe da kandela piztea, iluntasuna madarikatzea baino.

## Iñaki Irizar Bisoi europarra Goierrin ikerketaren egileetako bat:

# "Bisoia berreskuratu beharra dago, oraingo kopurua ez baita nahikoa espezieak irauteko"

**Bisoi europarra Goierrin betidanik egon arren, animalia ezazaguna da. Baina kaleratu berria den X. Gerriko ikerketa bekako liburuak goierritarrok animali hau gehiago ezagutu ahal izango dugu. Iñaki Irizar, Idoia Villate, Jorge Gonzalez eta Nere Amaia Laskurainek lana egiteko dozena bat inguru bisoi identifikatu dituzte. Iñakik azaldu digu beraien lanaren berri.**



**Zergatik hasi zineten bisoi europarra ikertzen?**

Arlo horretako lanak egiten genituen eta bisoiarekin lanean hasita geunden Nafarroan, bertako kontserbazio plana egin genuen hango Gobernurako. Eusko Jaurlaritzarako bisoiaren banaketari buruzko lan azkar bat ere egin genuen, Euskal Erkidego mailan. Hor ikusi genuen Gipuzkoako populazio nagusia, eta zenbait momentutan bakarra, Goierrin zegoela. Orduan sortu zen bekaren deia. Helburu oso finkorik gabe, baina hasita geunden Goierrin ikertzen. Bisoia ikertzeko izugarrizko beharra dago. Leku batzutan ezin daiteke, lan egiteko leku txarrak direlako edo beste zenbait lekutan, bisoi amerikarra inguruan dabilelako eta lortzen diren emaitzak ez direlako hain onak. Goierri oso leku egokia zen. Gipuzkoako gune nagusia izateaz gain, hemen ez da bisoi amerikarrik inoiz ikusi, hemengo animaliak ez daude gaixo.

**Ikerketarako metodologia zein da?**

Goierrin bisoia bazegoela bagenekien baina zehaztasunik gabe. Orduan, helburu bat zen, bisoia Goierriko zein errekatan zegoen zehatz jakitea. Orain arte lan hori tranpa bidez egitea zen normalena baina izugarrizko lana zen. Hori dela eta harrapaketa fotografikoa erabili genuen, errekatan argazki makinak jarriz. Makina horiek prestatuta daude animalia hurbiltzen denean argazkiak ateratzen hasteko. Horri esker egin daiteke, astebete bertara joan gabe egon eta astebetera emaitzak ikustera joan. Tranpekin baino emaitza askoz hobeak lortzen dira, lan askoz ere gutxiagorekin. Goierrin bisoia zein errekatan bizi den ikusteaz gain, Goierrin errekatan beste zein karniboro bizi diren ikusi dugu.

Ikerketaren beste helburu bat, bisoia nola bizi den jakitea zen. Horretarako radiotrakinga erabili dugu; hau da, irrati transmisorea jartzea animaliari, bere jarraipena egiteko. Horrelako animaliekin dagoen arazo bat da, kontserbatzerakoan, ez dela jakiten animaliak erreka nola ikusten duen benetan eta zer behar duen. Horrelako teknikekin lortzen da ikustea, erreka batean dauden milaka egituren artean zeintzuk diren berarentzat premiazkoenak. Horrek ere balio izan digu ikusteko nola banatzen diren errekan.

**Nola bizi dira?**

Bisoiak bakarka bizi dira. Duela gutxi jakin zen arrak beraien artean oso territorialak direla, bakoitzak bere erreka zatia daukala eta ez dagoela harremanik. Hori Urdaibain zehaztu zen. Goierrin beste datu interesgarri bat jakitea lortu da: emeak beraien artean ere berdin-berdin jokatzen dutela. Eme bakoitzak bere erreka zatia dauka. Erreka zatiaren kalitatearen arabera, kilometro batekoa edo bikoa izan daiteke. Arrak beraien artean berdin. Arraren erreka zati horretan bi edo hiru eme sartzen dira. Urtean pare bat egunez elkartzen dira, arrak emea estaltzeko, eta gero berriz ere bakarka. Hori ere datu garrantzitsua da, bisoiaren populazioa edukitzeko zenbat erreka behar den jakiteko. Eta emaitza politak lortu dira.

**Urtean zenbat ume izaten ditu?**

Bataz beste, hiru. Baina hilkortasun handia daukate, gehienak akabatu egiten dira. Udazkena iristean amak bere kumeak bidali egiten ditu. Errekan behera hasten dira lurralde berri baten bila. Tarteka-tarteka hemen errekak oso eraldatuta daude eta bisoiak errekatik atera beharra dauka eta horrelakoetan oso-oso erraza da txakur batek akabatzea edo auto batek zapaltzea.

**Nola elikatzen da?**

Errekari lotutako animalia da eta erreka garbia eta erreka bazterrak oso onak dauzkanak behar ditu. Gai hau ikertu beharra dago baina seguruenik bere elikadura izango da, saguak, igelak, zapoak, arrainen bat...

**Goierrin bisoi amerikarrik ez dagoela diozue.**

Gipuzkoako zati batzuetan errepidean akabatutako bisoi amerikarrak aurkitu dira. Bizirik zeudenak bilatzen ibili gara baina ez dugu ezer aurkitu. Oraingoz ez dago. Araban zegoen bisoi amerikarren populazioa hazten doa eta gerta liteke zabaltzen joatea. Arrisku hori badago.

**Zein alde dago bi bisoien artean?**

Bi espezie erabat ezberdinak dira, baina neurri batean antzerakoak. Itxura aldetik nahiko antzerakoak dira. Biak marroiak dira. Bisoi europarrak aho muturra zuria dauka; amerikarrak aho azpialdea zuria eta gainerakoa marroia du.




*Ikerketaren lau egileetatik bi, Iñaki Irizar eta Nere Amaia Laskurain, liburuaren aurkezpen egunean.*

Biak errekako animaliak dira eta horregatik jarri zaie biei izen berdina. Antzekotasunak hor bukatzen dira eta arazoa zera da: leku berdinean bizi dira eta gutxi gorabehera ingurune berdineko espezialistak dira eta elkartzen direnean lehia sortzen da. Bisoi amerikarra handiagoa denez, europarra bidali egiten du. Gaur egun munduan basa-bizitza desagertzeko arrazoi nagusia da habitata asko eraldatzen dela. Baina bigarren arrazoi bat badago: espezie exotikoen bertakotzea. Hori bisoiarekin gertatzen da, karramarroekin, eta gero eta espezie gehiagorekin.

**Bisoi europarrarentzat mehatxurik handiena zein da beraz.**

Batetik bere habitata, erreka, asko eraldatzen dugula eta ez daukala gaitasun handiegirik ingurune berrira egokitzeko. Bigarrena, leku batzuentzat bisoi amerikarra sartu eta desplazatu egiten dutela. Ingurunea aldatu egin dugu eta horretan jarraituko dugu. Gertatzen dena da, espezie batzuk oso ondo moldatzen direla, arraro izatetik ugari izatera pasatzen direla; baina beste espezie batzuk aldaketa horien aurrean, moldatzeko oso gaitasun gutxi dute. Bisoi europarra hortxe sartuko genuke.

Erreken eraldaketei dagokionean, zera esan nahi dut: erreken bideratze lana, ubidea bera dragatzea... Bisoiarentzat oso garrantzitsua da erreka bazterrean landaretza asko egotea, ubidea oso errekakoa izatea (harri handiak, korronteak, putzuak...), ur bazterrean zuhaitzak egotea sustrai handiekin... Bisoiaren kontserbazioan horiek denak eragin handia daukate eta ez da nahikoa ura garbi egotea.

**Bisoi europarraren kontserbaziorako gomendioak-edo azaltzen dituzue liburuan.**

Kontserbazioa azken batean, Administrazioak aurrera eraman beharreko zerbait da. Badirudi bisoi europarraren kontserbazio planak martxan hasi direla eta Euskal Erkidegoan onartuko direla dirudi. Baina kontserbazioa eraginkorra izateko, benetan jakin behar da bisoiaren arazoa zein den eta horri nola aurre egin behar zaion. Liburu honek horretan pauso bat ematen du. Goierrin lortu den informazioari esker, Europar Batasunaren intereseko leku bezala izendatu dira Goierriko bi erreka zati: Agauntza eta Oria ibaia, Amezketa errekarekin bat egin duen tokitik Legorretaraino. Amundarain erreka ere interes leku izendatu da beste arrazoi batengatik. Lehendik ere Oria ibaia, Seguratik gora babestua zegoen.

Azken helburua izan behar da, errekak garbitzen diren heinean, bisoia berreskuratzea. Ezin da pentsatu, gaur egun daukagun populazio txikia mantentzearekin nahikoa daukagunik. Helburua hori izanez gero, desagertu egingo litzateke.

**Dokumentu lan garrantzitsua da beraz.**

Bai. Goierrirako interesekoa da liburua. Baina bisoia leku gutxitan kontserbatzen da eta bere kontserbazioa garrantzitsua da Gipuzkoa eta Euskal Herri mailan. Baina hemen lortu den informazioa garrantzitsua da bisoia kontserbatzeko, adibidez Errusian. Izan ere, hemen jakitea lortu da, emeak nola banatzen diren eta horrek nola laguntzen duen bisoiaren populazioa interpretatzen. Habitataren hautespenari dagokionean, errekako zein elementu aukeratzen dituen bisoiak. Izugarrizko pausoa da. Orain arte landu gabe zegoen, horri esker interpreta dezakegu zergatik bizi diren bisoiak han eta ez hemen. Ikerketaren emaitzak oso-oso interesgarriak dira. Euskaraz argitaratu da liburu eran. Baina aurrerago, jasotzen den informazioa beste argitalpen espezializatuetan argitaratuko dugu, nazioarte mailan. Eta hau guztia, Gerriko Ikerlan Bekak, honen antolatzaileek eta babesle desberdinek egin dute posible.

**Gai zientifikoa izanik, era ulergarrian idatzi duzue liburua.**

Hori zen epaimahaiaren baldintza bat. Hasieran ikerketaren gure asmoa zen hiru galderei erantzutea. Baina antolatzaileek erabaki zuten era ulergarrian aurkeztu behar zela lana, edonork ulertzeko. Beraz, informazioaren testuingurua, Goierriko faunaren historia, bisoia testuinguru zabal batean kokatu da, eta gero, horrelako lan baten praktikotasuna ikusteko, lehenengo gomendioak eman dira bisoia kontserbatzeko.

**Era honetako lehenengo liburua idatzi duzue, eta gainera euskaraz.**

Lan asko eman digu. Guretzat dena zen berria. Hizkuntza bera ere bai. Gure arloko hiztegia ingelesez eta frantsesez erabiltzen ohituta gaude, gazteleraz eta euskaraz ez. Dionisio Amundarainek laguntza handia eman digu. Traba asko sortu zaizkigu baina denak gainditu ditugu eta oso pozik gaude emaitzarekin. Gerriko Elkartekoen laguntza benetan eskertzekoa izan da uneoro.

**Lana hemen bukatzen al da?**

Guk bisoiarekin lanean jarraitzeko asmoa daukagu. Taldeko batek, Idoiak, prestatu du, bisoiarekin lan egiteko unitate didaktiko bat, eskoletan banatzeko, eta hori euskaratzen hasi gara. Bisoiak bertan jarraitzen duen ala ez jakiteko lanean jarraitzen dugu. Proiektu indartsuren bat sortzen denean, beste ikerketaren bat egiten jarraituko dugu. Ikerketaren txarrena da, oso kostu handia duela. Radiotrakinga egiteko tresna esaterako, oso garestia da.

**Goierrin beste espezie bereziren bat aurkitu al duzue?**

Muturluze pirinearra dago. Gipuzkoako populazio bakarranetakoa Goierrin aurkitu da. Bizkaian ez dago, Araban ere ez. Nafarroan zerbait gelditzen da. Oso datu polita eta Europa mailan nahiko bitxi polita da eta horrek ere babes neurriak eskatuko ditu.

# Zegamako Intxaustiko industrialdea inauguratu da

## 11.500 m²tan 17 pabilioi eraiki dira

**Joan den apirilaren 30ean inauguratu zen Intxaustiko Industrialdea. Bertan izan ziren, berau gauzatu ahal izateko kudeaketak aurrera eraman dituzte erakundeetako ordezkariak. Besteak beste, Anton Zubiaurre, Sprilur-eko Zuzendari Nagusia, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia eta Turismo Departamentuko foru diputatua den, Jose Ramon Beloki, Eusko Jaurlaritzako Gipuzkoako Uren zuzendaria, Julen Goikoetxea eta Juan Inazio Galdos Zegamako Alkatea.**




Intxaustiko Industrialdea eraikitzeko Zegamako Udala, Eusko Jaurlaritzaren Sprilur erakunde autonomoa, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Zegamako Udalaren elkarlana behar izan da batez ere, eta aipatu beharrekoa da, garrantzitsua izan dela, Goierri eskualdeko udalerriek industrigintza zeregin amankomun bezala ulertu izana ere.

Lursailak eskuratzea izan zen lehen pausoa eta ondoren, "Sestra" Injineritzaren eskutik, urbanizazio proiektua egin eta 2001eko apirilaren 26an ipini zen lehen harria. Urbanizazio lanak "Hijos de J.C. Mendiola S.A." enpresari esleitu zitzaizkion. Pabiloien proiektua Xabier Yeregi eta Luis Pedro Blanco arkitektoek gauzatu zuten. 2002ko apirilaren 15ean, "Goierri Beheko Industrialdeko" Administrazio Kontseiluak "Antzibar S.A." enpresari esleitu zion pabiloien eraikuntza. Ez da ahaztu behar, Industrialde hau eraikitzeko Oria ibaiaren biderapen lanak ere kudeatu zirela.

### 17 pabilioi

Guztira, 11.500 m² eraiki dira, 17 pabiloietan banatuta, zortzi, 230 m²koak dira eta dagoeneko salduta daude eta bederatzi, 1100m²koak dira, hautetatik 8 daude salgai.

Pabiloiaren prezioak oso erakargarriak dira eta zer esanik ez ordaintzeko dituzten erraztasunak. Pabiloi handien m²koak 421 euro balio du (70.000 pzta) eta txikienak 450euro (75.000 pzta).

Halaber, datozen hiruzpalau urteetan Zegamatik N-leraino bidea zabaltzea aurreikusten da industrigunea ongi komunikatuz eskualdeko gainerako industrialde eta zerbitzuekin. Idiazabalgo bidegurutzetik, hau da, N-1etik 7 km. besterik ez daude, hau da bost minutuko bidea.

Halaber, industrigune honetan 150 auto aparkatzeko adina toki sortu da.

*Edurne Albizu*

### 250 lanpostu galdu dira Zegaman

Zegamak, joan den mendearen hasieran, industria ugari izan zuen, Zegamako Papertegia, Elektrokimika, Inprenta e.a. eta desindustrializazioaren ondorioz, 1970-80 hamarkadan 250 lanpostu inguru galdu zituen. Industrialde berri honekin, industria sustatzeko espazio fisikoa berreskuratu du herriak eta etorkizun itxaropentsua ematen dio.



kutxa
gizarte ekintza

UROLA GARAIKO LANBIDE ESKOLA
Beloki Hiribidea z/g
ZUMARRAGA
Tel.: 943 72 54 77

## BATXILERGO TEKNOLOGIKOA

| Euskaraz | Gaztelaniaz |
|---|---|
| D eredua | A eredua |

***Irtenbideak:***
***Unibertsitatea***
***Goi mailako zikloak***

## LANBIDE HEZIKETA
A ereduan eta irakaslego elebiduna

| | |
|---|---|
| • Makinaria eta linea-eroanbideen instalazioa eta mantenimendu elektro mekanikoa.<br>• Makanizazioa | ***Erdi mailako zikloak***<br>***2.000 ordu*** |
| • Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak<br>• Informatika-aplikazio garapena<br>• Mekanizazioa bidezko produkzioa<br>• Industri ekipoen mantenimendua | ***Goi mailako zikloak***<br>***2.000 ordu*** |




# GOGORATU !

Errenta Aitorpena

EUSKARAZ

egin dezakezu



Renta 2003 Errenta

HITZARO EUSKARA ELKARTEA

Ordiziako Udala

bai euskarari

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA

seriadk® serigrafia

Zuri egokitutako serigrafi lanak egingo dizkizugu - Kamixeta serigrafiatuak - pegatinak enpresa jantziak - txiskeroak - enpresa opariak boligrafoak - metakrilatoak - poltsak (tirada laburretan) eta imajina dezakezun ia edozein gauzaren gainean inprimatu dezakegu







e-mail: seriadk@publiadk.com

Zelata Berri plaza, 3 c.p. 20200 Beasain (Gipuzkoa) tel.:943 80 40 27 Fax: 943 80 40 28

*Aranzadiko arkeologoen indusketa lanei esker*

# XVIII. mendeko burdinola aurkitu dute Igartza jauregiaren ondoan

**Orain dela urte gutxi bota zuten Indar lantegiaren azpian aurkitu dute Aranzadiko arkeologoek XVIII. mendeko burdinola hori. Bi berezitasun ditu aurkikuntza honek: batetik, makinariaren arrastoak oso ondo kontserbatuta agertu direla, eta bestetik, Igartzako burdinolen bilakaera argi eta garbi erakusten duela, Beasainen XIV. mendean egon zen burdinolaren aztarnak agertu baitira.**





Lau hilabete luzeko indusketa lanaren ondorioz aurkitu zuten Aranzadi Zientzi Elkarteko kideek Beasaingo Igartza Jauregiaren ondoan XVIII. mendeko burdinola honen aztarnak. Aranzadiko Idazkari Nagusi Juantxo Agirrek adierazi zuenez, oso ondo kontserbatzen da burdinola bere osotasunean. Horrez gain, XIV. mendean eraikitako beste burdinola baten aztarnak ere aurkitu dituzte, baina oraindik ez dituzte sakontasunean aztertu.

## 1782. urtean eraberritua

1782an eraberritu zuen Francisco Iberok orain hain garbi ikus daitekeen burdinola. Iberok berak eraberritu zituen Andoain, Usurbil eta Gipuzkoako beste hainbat herritako eliza eta lantegi ugari. Orduko eraberritze hartatik gaur arte lantegiko ateak -bi ate nagusiak eta ikaztegietara joateko beste biak-, makinariaren arrastoak, ur aska, hauspoaren lekua, ingudearena eta mailuarena garbi ikus daitezke; euskarri lanetarako ipini zituzten egurrak ere oraindik kontserbatu egiten dira.

Juantxo Agirreren arabera, *"lehen aldia da burdinola baten elementu hauek guztiak hain ongi kontserbaturik aurkitzen dituguna"*; gainera, *"garai hartako burdinolen teknologia agerian uzten du aurkikuntza honek"*. Lantegiaren alboan, bi gelatxotara joateko ateak zeudela ikus daiteke, ikatza gordetzen zuten ikaztegietara joateko. Ikaztegien alboan biltegia zeukaten.

Zoruak eta hormak oso ongi kontserbatzen dira, ia berrogeita hamar urtean horren guztiaren gainean lantegi bat egon dela kontuan hartuz. Zehazteke dago burdinolaren altuera zenbatekoa zen, eta estalkia ere kezka iturri dute. Agirreren esanetan, bost metrokoa izango zela pentsatzen dute. Indusketak amaitu ondoren ere estalkia izango da ardura nagusietako bat, burdinola bere hartan utziz gero, bertan behera erortzeko arriskua baitago.

## Azken burdinola handietako bat

Euskal Herriko azken burdinola handietako bat izan zen Igartzakoa, izan ere, XIX. mendearen erdialdera ikatz begetala erabiltzen hasiko ziren labe garaiak sortu hasi ziren. Arrasatetik eta Agurain-dik zetozen galtzadek bat egiten zuten tokian zegoelako pentsatzen dute adituek hainbeste iraun zuela. Leku estrategikoa nonbait. 110 metro koadroko burdinola, jauregi ondoan ez ezik, errota eta biltegi ondoan ere bazegoen, Oriaren indarra aprobetxatzeko leku onean. Gainera, lehengaiak oso eskura zituzten: hasieratan Beasaindik bertatik hartzen zuten egurra, eta geroxeago Ataun, Sakana eta Aralar aldera joaten ziren egur bila.

## Urbanizazio planaren aldaketa

Indusketa hauek egi bihurtzeko, ordea, Beasaingo Udalak urbanizazio plana aldatu behar izan du, Aranzadi Zientzi Elkarteko adituen gomendio eta eskariei jarraituz. *"Ondarea gordetzeko eta Beasainen industrializazioaren hastapenak bertan egon daitezkeelako"*, hartu zuen Udalak erabaki hori. Indar lantegia bota ondoren, aurkikuntza arkeologikoak dauden lekuan etxeak egitekoak ziren. Orain, ordea, burdinolaren aztarnak bere hartan uzteko, beste leku batean egingo dituzte etxebizitzak.

# Maiatzaren 25ean egingo dira udalak aukeratzeko hauteskundeak

**Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dira maiatzaren 25eko udal hauteskundeetan aurkeztuko diren hautagai zerrendak. Herriz herriko hautagai zerrendak dituzue segidan. PPk herri guztietan aurkeztuko ditu zerrendak; talde independenteek ere bai (batzuk Batasunak utzitako hutsunea betetzeko); PSE-EEk, 8 herritan; EAJ-EA edo EA-EAJ koalizioak 10 herritan; IU-EBk 3 herritan; eta Aralarrek batean.**



## Altzaga:

**PP:** Sebastian Diaz Martinez.

**Altzagako Artea Taldea:** Imanol Mujika Katarain.

## Arama:

**PP:** Carlos Anton La Poza.

**Aramako Herri Batzarra:** Mari Jose Olazabal Aldasoro.

## Ataun:

**PP:** Francisco de Borja Larroca Saez de Adana.

**Herrigintza:** Bittor Oroz Izagirre.

**Ataundarrok:** Aitor Aldasoro Sukia.

## Beasain:

**PP:** Julio Herreros Serna.

**PSE-EE:** Jose Antonio Sanchez Gutierrez.

**Igartzatik:** Mikel Olano Genbe.

**EAJ-EA koalizioa:** Patxi Plazaola Muguruza.

**IU-EB:** Iñaki Saldaña Herrero.

## Ezkio-Itsaso:

**PP:** Luis Jimenez De Orbaneja.

**Ezkio-Itsasoko Herrikideak:** Jose Ignazio Etxezarreta Estala.

**Indartuz Aurrera:** Simon Idiakez Korta.

## Gabiria:

**PP:** Yolanda Barasoain De Frutos.

**Gabiria Hautesle Elkartea:** Xabier Aitor Murua Zumalakarregi.

**Pagoeder Herri Plataforma:** Domingo Bidegain Lasa.

## Gaintza:

**PP:** Manuel Guerado Zorrilla.

**Gaintzako Herritarrak:** Santiago Garmendia Olano.

## Idiazabal:

**PP:** Francisco de Borja Izuzkiza Regalado.

**PSE-EE:** Alicia Vetas Santos.

**Indarzabal:** Xabier Intxausti Barandiaran.

**EAJ-EA koalizioa:** Antton Irizar Imaz.

## Itsasondo:

**PP:** Maria Lourdes Lopez Nieto.

**Gu Geu:** Xabier Iturrioz Oiarbide.

**EAJ-EA koalizioa:** Juan Lasa Jauregi.

## Lazkao:

**PP:** Angel Olaso Villalba.

**PSE-EE:** Juan Manuel Serna Portugal.

**Areria:** Irantzu Amundarain Irizar.

**EAJ-EA koalizioa:** Felix Urkola Iriarte.

**IU-EB:** Marco Antonio Muñoz Chao.

## Legorreta:

**PP:** Santiago Herreros Fernandez.

**PSE-EE:** Cristobal Massé Nuñez.

**Alkarre:** Nekane Iturrioz Amondarain.

**EAJ-EA koalizioa:** Patxi Xabier Iraola Agirrezabala.

## Mutiloa:

**PP:** Juan Carlos Agirre Villamuza.

**Mutiloako Herri Kandidatura:** Iñaki Ugalde Alustiza.

## Olaberria:

**PP:** Carlos Cabeza de Vaca Aldanondo.

**PSE-EE:** Juan Pedro Risco Romero.

**Olaberriko Talde (Independientea):** Jose Ignazio Alonso Arratibel.

**EAJ-EA koalizioa:** Txomin Mendoza.

## Ordizia:

**PP:** Ricardo Carmelo Hueso Abancens.

**PSE-EE:** Ignacio Dubreuil Txurruka.

**EAJ-EA koalizioa:** Alejandra Iturrioz Unzueta.

**IU-EB:** Julian Carrasco Obregon.

**Ordiziarrak Gera:** Julen Agirre Iturrioz.

Autowag, s.a.
Audi
☎ 943 888 254 943 888 266 Faxa: 943 888 105
N-1 errepidea, 419 Km
BEASAIN

LEIAR KRISTALDEGIA
ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24
BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70
BEASAIN

## Ormaiztegi:

**PP:** Maria Rosario Bajo Veros.

**PSE-EE:** Alicia Jacinta Peral Susan.

**Ormaiztegiko Herri Taldea:** Iñaki Maiora Oria.

**Argitzen:** Amalur Cuesta Otegi.

**EAJ-EA koalizioa:** Javier Muguruza Zangitu.

## Segura:

**PP:** Maria Del Coro Gortazar Lorente.

**Harresi:** Luis Maria Telleria Lezeta.

**EA-EAJ koalizioa:** Mikel Areizaga Camara.

## Zaldibia:

**PP:** Jose Manuel Aizpurua Sanchez.

**PSE-EE:** Ramiro Tomas Rodrigo.

**Herriari Leial:** Jose Joakin Zubeldia Aranburu.

**Aralar:** Francisco Maria Aierbe Urbiztondo.

## Zegama:

**PP:** Gustavo Manuel De Aristegi y San Roman.

**Aizkorri:** Angel Irigoras Ormazabal.

**EA-EAJ koalizioa:** Juan Inazio Galdos Larrea.

## Zerain:

**PP:** Gema Mencia Gutierrez.

**Zeraingo Herri Kandidatura:** Jose Ignazio Berasategi Lasa.

# 12 zerrenda baliogabeturik

HB, EH eta Batasunaren legez kanporatzeak ondorioak izan ditu Goierriko herri gehienetan. Honela, udal hauteskundeei begira, zenbait herritan herri plataformak sortu ziren. Bigarren fase batean sinadura bilketa egin zuten, udal hauteskundeetan aurkezteko behar-beharrezkoak ziren sinadurak. Helburua beteta, hautagai zerrendak osatu zituzten. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argiratu ziren zerrenda guztiak.



*Azken legegintzaldian Segurako alkate den Luli Telleria, baliogabetutako 'Harresi' hautagai zerrendaren buru da.*

Estatuko Fiskaltzak, ordea, Goierriko 14 hautagai zerrenda baliogabetu zituen, Batasunaren ordezko zirela argudiatuta. Ezkio-Itsasoko 'Indartuz Aurrera', Ormaiztegiko 'Argitzen', Segurako 'Harresi', Zegamako 'Aizkorri', Aramako 'Aramako Herri Batzarra', Ataungo 'Ataundarrok', Beasaingo 'Igartzatik', Idiazabalgo 'Indarzabal', Itsasondoko 'Gu Geu', Lazkaoko 'Areria', Legorretako 'Alkarre', Olaberriako 'Olaberriko Talde Independientea', Ordiziako 'Ordiziarrak Gera' eta Zaldibiako 'Herriari Leial'.

Ordu gutxi izan zituzten taldeetako ordezkariek Auzitegi Gorenean elegiteak edo errrekurtsoak aurkezteko. Erantzuna ere berehala etorri zen, maiatzaren 3an. Aramako Herri Batzarra eta Olaberriko Talde Independenteari argi berdea eman zion Auzitegi Gorenak, gainerakoei argi gorria. Hau da, udal hauteskundeetan parte hartzeko aukera ukatu egin zioten.

Baliogabetutako 12 taldek Auzitegi Konstitizionalean, babes errekurtsoa aurkeztu zuten maiatzaren 5ean. Informazio hau idazten ari ginela, oraindik erabakia jakinarazteko zuen Auzitegi Konstituzionalak. Honen erantzuna aurkakoa izango balitz, Europako Giza Eskubideen Epaitegira joko dute.

### Parte hartzeko asmoa

Herri plataformetatik jakitera eman digutenez, maiatzaren 25eko hauteskundeetan parte hartzeko asmoa daukate. Beraien boto paperak aukeren artean izango omen dira eta boto horiek zenbatzea bermatuko dutela gaineratu dute. Hauteskunde kanpaina egiteko asmoa ere badaukate.



### Araman larri

Une larriak pasatu zituzten Araman maiatzaren 3ra arte, Auzitegi Gorenak Aramako Herri Batzarraren errekurtsoa onartu zuela jakitera eman zuen arte. Batasunarekin lotu zuten Aramako Herri Batzarra, baina Aramako alkateak, Maria Jose Olazabalek, goitik behera gezurtatu zuen argudio hori.


PSIKOLOGI KLINIKOA

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/95

AURRE ZITA
☎ 943 887 221
☎ 610 020 041

JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

PALACIO ORIENTAL
JATETXE TXINARRA
東園酒家
× Kalitate eta zerbitzu hoberena
× Etxerako zerbitzua Goierri osoan
☎ 943 725 243 Labeaga, 33 H URRETXU

SEGURA IRRATIA
F.M. 89.2
EGUNEKO 24 ORDUAK ZUREKIN

Ataun

# Herritarrak artista Egunkariaren aldeko jaialdian

Egunkariaren aldeko jaialdia ospatuko da maiatzaren 17an Ataunen, herriko Egunkariaren Aldeko Batzordeak antolaturik. Ekitaldiaren helburua itxi duten euskarazko egunkari bakarraren aldeko aldarrikapena egiteaz gain, gure herriaren atxikimendua azaltzea ere izango da, eta hein berean, Euskaldunon Egunkaria berriro ere argitara dadin Euskal Herri osoan egiten ari diren ekimen desberdinen bidez, diru laguntza lortzea ere. Maiatzaren 17ko ekitaldi honen bereizgarririk aipagarriena, ziurrenik ere, partehartzaileena izango da. Oholtza gainean izango direnak ez baitira espektakuluaren munduko profesionalak, lanbide desberdinetako herritarrak baizik. Bertan izango dira, besteak beste, Ataungo punta-puntako kirolariak, Joxemiel Barandiaran Herri Ikastetxeko irakasle eta ikasleak, Egunkariako kazetari herritarrak... kantuan, poesiak errezitatzen..., herriko bertsolariak, txalaparta joleak... eta sorpresatxoren bat edo beste ere izango omen da.

Beraz, Egunkariaren aldeko ekimen honetan zure aletxoa jartzeko prest bazaude eta, aldi berean festa giroan une atsegin bat pasatzeko gogoz bazaude, ager zaitez maiatzaren 17an, gaueko 10etan Herri Antzokira.

## Iraupen luzeko II. mendi ibilaldia

'Jentilen bideetatik: Iraupen Luzeko II. Mendi Ibilaldia' izango da datorren maiatzaren 24an, larunbata. Informazio gehiago 6. orrialdean duzue.

## San Isidro eguna

Maiatzaren 15ean, ohiturari jarraitzeko asmoz, barazki lehiaketa eta gazta erakusketa antolatu ditu Udalak. Aurten, San Martinen ospatuko da.

Barazki lehiaketan, aurkezpena, kopurua eta kalitatea baloratuko dira. Herriko edonork parte har dezake lehiaketan. Barazkiak norberarenak eta herriko lurretan haziak izan behar dira. Gutxienez bost barazki mota aurkeztu beharko dira. Bakoitzak jarritako postua erabili ahal izango du. Sariak, lehenengo postutik 6.enera: 72, 60, 48, 36, 24 eta 12 euro.

Zizen atalean sari berezia emango da. Lehenengoarentzat 36 euro, eta gainerako birentzat, 24 eta 12 euro.

Gazta erakusketan ere edonork har dezake parte.

*Agurtzane Bikuña*

## Heriotzak

Aste Santuko oporrotan Atxurreneko Josu Agirre 'Mali' gaztearen heriotzaren berri izan dugu. Bestalde, joan den astean zendu zen Larruntzako Teresa Egaña Tolosa. Doluminak sendiei.

## Hauteskundeak: Herrigintza eta Ataundarroken hautagai-zerrendak

Datorren maiatzaren 25ean ospatzekoak diren udal hauteskundeetarako hautagai-zerrenden berri eman dute bai Herrigintza eta Ataundarrok Herri Bilguneak ere. Azken egunotako berriek egoera errotik aldatu badute ere, Ataundarrok Herri Bilguneak bere hautagai zerrendarekin aurrera egiteko asmoa azaldu zuen joan den ostiralean, ilegalizazioaren aurka protesta egiteko antolatu konzentrazioaan. Bide batez, eta Ataundarrok Herri Bilguneak bidali digun txostenean, beraien esker ona azaldu nahi dizue Hauteskundeotara aurkeztu ahal izateko zuen sinadura eman duzuen 246 herritarroi. Egoerak egoera, ilusio handiz Ataun eta ataundarren alde, herritarrekin elkarlanean aritzeko asmoarekin jarraitzen dutela ere gaineratzen dute eta beren aldeko botoek merezitako ordezkaritza izango dutela berresten dute. Bestalde, Herrigintzatik Bittor Oroz aurkeztuko da alkatetarako eta Ataundarrok-etik berriz, Aitor Aldasoro. Zerrendak osatzen dituzten gainontzeko herritarrak berriz, honakoak:



**Herrigintza:** Jexux Goikoetxea, Rosa Goñi, Iñigo Goikoetxea, Iñigo Kerejeta, Patxi Arratibel, Xabier Eskisabel, Juana Isabel Aramendi, Garikoitz Mendizabal. **Ordezkoak:** Aitor Arratibel, Pello Agirre, Jaione Munduate.



**Ataundarrok:** Amaia Auzmendi, Martxel Mendizabal, Julen Munduate, Jexux Arin, M. Rosario Goikoetxea, Aloña Arratibel, Migel Anjel Aierbe, Naiara Munduate. **Ordezkoak:** Pedro Aierbe, M. Teresa Etxeberria, Mikel Egiguren.




# ATAUNDARROKen Herri Konpromisoa

Herritik eta herriarentzako sortua, Ataundarrak eta Ataun mamitzat dituen herri konpromisoa:

- ✖ Herritarren partaidetza bultzatu.
- ✖ Herri nortasuna mantendu eta sendotu.
- ✖ Udal kudeaketaren gardentasuna ziurtatu.



- Aitor Aldasoro Sukia
- Amaia Auzmendi Arrue
- Martxel Mendizabal Begiristain
- Julen Munduate Urdangarin
- Jesus Arin Baztarrika
- Maxa Goikoetxea Munduate
- Aloña Arratibel Zeberio
- Migel Angel Aierbe Aldasoro
- Naiara Munduate Dorronsoro
- Peio Aierbe Apalategi
- Maitere Etxeberria Arrese
- Mikel Egiguren Imaz

EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA

Ataundarrok

**Bozkatu Ataundarrok!**



## Arama

# San Isidro eguneko afaria

Maiatzak 15, San Isidro eguna, baserritarren eguna. Ospakizuna izango da herrian, iaz hasitako ohiturari eutsiz. Afaria antolatu da herriko tabernan, 15 euroren truke. Antxoa erreak, txuleta eta postrea da menua, trikitilariekin alaituta. Barrikotea ere izango da. Afaltzera joan nahi duenak, maiatzaren 13rako eman beharko du izena, tabernan bertan.

### Ogia eta egunkaria

Tabernan bertan, hemendik aurrera, ogia eta egunkaria erosteko aukera izango da.

## Aramako Herri Batzarra hauteskundeetan izango da

Maiatzaren 1ean, Estatuko Fiskaltzak, Aramako Herri Batzarrak datorren udal hauteskundeetan parte hartzerik ez zuela izango esan zuen, legez kanporatutako Batasunaren oinordeko zela esanez. Maria Jose Olazabal alkateak argudio hori goitik behera gezurtatu zuen. Errekurtsoa aurkeztu eta onartu egin zuen Epaitegi Gorenak eta Aramako Herri Batzarrak aukera izango du hauteskundeetan aurkezteko.

Aramako Herri Batzarra hautagai zerrenda honoko hauek osatzen dute: Maria Jose Olazabal Aldasoro, Asier Mujika Otegi, Josu Aldalur Unanue, Miren Jasone Aranburu Garmendia eta Karlos Izagirre Gaztañaga.

PPk ere aurkeztuko du zerrenda, guztiak ere herritik kanpokoak dira. Carlos Anton La Poza da zerrendaburua.

## Gaintza

# San Isidro eguneko festa

Baserritarren eguna, San Isidro eguna, maiatzaren 16an ospatuko da. Egitaraua prest du dagoeneko Udalak.

Ilunabarreko 8etan herri meza izango da. Ondoren, herri afaria Oteñe erretegian. Herri afarira joan nahi duenak, maiatzaren 14a baino lehen eman behar du izena.

Afalondoren Xabier Zeberio eta Jose Luis Gorrotxategi bertsolariak izango dira. Eta hauen ondoren, 'Jexuxen jazpana', Jexux Telleria eta Jexuxen Mujikaren eskutik.

## Itsasondo

# Bide On zine kluba

Maiatzan eta ekainan Bide On zine klubak eskainiko dituen filmak dituzue jarraian:

**Maiatzak 9:** 'Torrente 2'.

**Maiatzak 23:** 'La lengua de las mariposas'.

**Ekainak 6:** 'Los niños del Brasil'.

**Ekainak 20:** 'El hombre que leia novelas de amor'.

Ohi bezala, emanaldiak, Ertoetxen izango dira, gaueko 10etan hasita.


URBITARTE
tolare
sagardotegia



Txotx denboraldia zabalik
Tel.: 943 18 01 19
Ergoiena Auzoa ATAUN

IBAIONDO



AROZTEGIA
Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea
Altzariak neurrira
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa
☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47
Poltsikoko telefonoa: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN




MUJIKA
LIBURUDENDA
Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

Idiazabal

# Gazta egun jendetsua

Gazta egunaren seigarren edizioak Euskal Herriko 17 artzainen gazta dastatu eta erosteko aukera eskaini zuen. Aitzakiarik gabeko eguraldiak, bisitari asko ekarri zituen Idiazabala. Goizeko 10etan postuak ireki zituztenean hasi eta arratsaldeko 2ak arte, kanpotarrak bezala herritar asko hurbildu zen plazan eta inguruan jarritako postuetara.

Idiazabala etorritakoek, bertan zeuden 17 artzainen gazta dastatu eta jendearen ustez hoberena zena aukeratzeko modua izan zuten. Jendeak emandako sari hori Olaberriako Mikel Etxezarretak eta Eli Arrillagak (Aizpea Gazta) jaso zuten. Bigarrena Segurako Felix Goiburuk eta Karmele Muruak (Ondarre Gazta) eskuratu zuten eta hirugarrena Abornikanoko (Araba) Nagore eta Ander Ruiz de Zaratek (Antzina Gazta). Ikusleek artzainek apaindutako posturik dotoreena zein zen aukeratzeko modua ere izan zuten. Saria Idiazabalgo Jabier Aranburuk eskuratu zuen.

Aurten Euskal Herriko gaztarekin batera, Extremadurako gaztak ere izan du lekua Idiazabalen. Ibores, Torta del Casar eta Torta de la Serena motetako gaztak dastatu eta erosteko modua izan zen. Extremadurako gazta eta artzaintzari buruzko argibideak ere eman zituen bertako jatorri izendapeneko ordezkari batek.





*Ezkerrean Domingo Goiburu gazta egiten. Ezkerrean, Jose Goiburu eta Arantxa Lapizondo omenduak. Argazkiak: Itziar Mujika*

Gazta dastatzeaz gain, hura nola egiten den ikusteko aukera izan zen. Domingo Goiburu eta Jexux Aranburu herriko artzainak aritu ziren gazta modu zaharrean eta modernoan egiten. Luis Katarain berriz artilea nola lantzen den erakusten aritu zen. Plazan bertan mamia nola egiten den ikusi, eta hura dastatu eta erosteko modua izan zen. Ardi mozteak, zakurren erakusketak eta plaza bueltan jarritako jaki eta artisau postuek osatu zuten Gaztaren Eguna. Musika ere izan zen, Erramun Martikorena eta Mixel Ducau aritu ziren goiza alaitzen.

Seigarren edizioak Jose Goiburu eta Arantxa Lapizondo, bere emaztea, omendu zituen. Jose, Idiazabalgoa (Arteaga baserrikoa) da, baina azkeneko urteetan Galarretan (Araban ) bizi da. Idiazabalen ikasi zuen artzain ofizioa, eta oraindik ere eusten dio. Galarretan du artaldea eta tarteka gazta egiten du.

Gazta egunaren seigarren edizioa igandean eta aste barruan izandako lehiaketen sari banaketarekin bukatu zen. Mami txapelketaren laugarren edizioa, Lurdes Intxaustik irabazi zuen, bigarrena Lidia Aldasoro izan zen eta hirugarren Maria Jesus Begiristain.

**Xabier Urteaga**



*Argazkia: Itziar Mujika.*

## Igerilekurako arduradunak

Udalak igerilekurako arduraduna kontratatzeko deialdia egin du. Herritarra izan, 18 urte beteta edukitzea eta euskara jakitea dira baldintzak. Izena ematerakoan zerbitzua zein talderekin eskainiko den jakinarazi behar da. Ez da sorospen agiririk behar. Udalak ekainaren 1ean hasi eta denboraldia bukatu arteko kontratua eskaintzen du. Izena emateko epea maiatzaren 16an, bukatuko da.

## Uda kanpaina

Uda Kanpainan lanean aritzeko arduradunen bila ari da Udala. Herritarrei egindako deialdia da eta parte hartu ahal izateko 5 eta 16 urte bitarteko haurrei zuzendutako programa aurkeztu behar da. Izena eman eta programan aurkezteko epea ekainaren 5ean bukatuko da.

## Kontzertua

Maiatzaren 9, 19:00etan, kontzertua eskainiko du Hondarribiko Haize eta Perkusio bandak, Pilarreneako plazan, Musika Eskolak antolatuta.


izal
IMAZ eta CONTRERAS
PINTURA eta PAPERGINTZA
☎ 943 187 049 - 943 187 045
Ondramuño baserria IDIAZABAL

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA
zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 2 behea ORDIZIA
9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA
• Laborala
• Fiskala
• Kontablea
• Juridikoa
• Aseguruak
• Inmueble ajentzia

## Hauteskundeak

Datozen maiatzaren 25erako hauteskundeak deituta daudenez, Zegaman, hiru kandidatura desberdin aurkeztu dira.

Alde batetik, EA-EAJ/PNV koalizioak, egun alkate dagoen Juan Inazio Galdos aurkeztu du zerrendaburu berriro ere. Bestalde, Aizkorri plataformak, zerrendaburu Angel Irigoras aurkeztu du eta hirugarren zerrenda PPk aurkeztu du.

## 'Zeama Realarekin' Peñaren aurkezpena

Maiatzaren 2an aurkeztu zen Kultur Etxean 'Zeama Realarekin' Zegamako errealzaleen peña berri eta ekitaldi horretarako Errealeko Zuzendaritza Batzordeko partaideak eta lehen mailan jokatzen duten eta jokatu duten jokalariak ekarri zituzten. Kultur Etxeko aretoa bete betea egon zen eta giroari eusteko herriko ostatuan afari bat egin zuten. Peña berri honek dagoeneko 100 bazkide baino gehiago ditu eta hasera ona eman diotela esan behar, ea aurten liga irabazten duen!!!



## Intxaustiko industrialdea martxan

Joan den apirilaren 30ean, inauguratu zen Intxaustiko Industrialdea. Bertan izan ziren, besteak beste, Zegamako Udaleko ordezkariak, Gipuzkoako Foru Aldundiko, Ekonomia eta Turismo Departamentuko, Jose Ramon Beloki Foru Diputatua, Eusko Jaurlaritzako, Gipuzkoako Uren Zuzendaria den Julen Goikoetxea eta Sprilur-eko Anton Zubiaurre Zuzendari Nagusia. Zegama eta zegamarrontzat egun garrantzitsua izan zen, gure herriak etorkizuna izateko beharrezkoa duen industri lurra eskuratu baitu. Guztira 11.500 $m^2$ eraiki dira, 17 pabiloietan banatuak; pozgarriena, 9 pabiloi dagoeneko salduak egotea da, 230 $m^2$ko guztiak eta 1.100 k2ko bat. Bestalde, esan, pabiloi hauek prezio konpetitiboak dituztela eskualdekoekin konparatuz eta Juan Inazio Galdos, Zegamako Alkateak, eskualdeko enpresariei gonbidapen berezia egin zien, Zegamako industrialdearen alde apustua egin dezaten; gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiak, datozen hiruzpalau urteetan Zegamarako bidea zabaltzea espero da N-1etik eta horrek ere balio erantsi garrantzitsua emango dio gune honi.

*Edurne Albizu*


**VOLVO**

LAND-ROVER

**ANZIZAR, S.A.**

**Autoen salmenta**
**Mekanika eta elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48 11
*www.anzizar.com*
**BEASAIN**

**JAUREGI**
**TOLDOAK s/l**
**Tfnoak.: 943 88 02 43**
**943 88 01 33**
**BEASAIN**

GABINETE PSIKOLOGIKOA
ARPE

*Pedro Jose Landa Gutierrez*
PSIKOLOGOA
Kol. Zkia. E - 1687

- Depresioak
- Harremanetarako arazoak
- Beldurrak
- Antsiak
- Segurtasun eza

**Ordua eska ezazu konpromezurik gabe**
☎ 943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ezk BEASAIN

**KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA**
*Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak*
**Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60 Faxa: 943 08 55 61**
**Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.** **BEASAIN**

# Ertaroko itxura eta giroa herri gunean

Artzain eguna izan zen urteko peri berezietan lehena. maiatzarekin batera Ertaroko periari dagokio oraingoan txanda. Asteburuan garai bateko itxura berreskuratuko du herri guneak eta Ertaroko ohiturak izango dira ikusgai. Garai hartako sarrera nagusietako lautik bi ipiniko dira,Gaztelakoa (Urdaneta kaletik Kale Nagusia bitartekoa) eta Frantziakoa (Foruen pasealekutik Kale Nagusia bitartekoa). Etxezarreta, Santa Maria, Nagusia eta herri guneko gainontzeko kaleak lastoz eta oihalez beteta. Esan bezala, Ertaroko Ordiziara atzerabuelta.

Larunbat eta igandean ez dira faltako gizon-orkestra, juglareak, antzerkia, zaldunen desfilea, dantza taldeak, musikariak, belatz-zaintzailea, ferratzaileak eta abarrak. Bi egunotako egitaraua jarraian:



### Maiatzak 10, larunbata:

**11:00etan:** azokako segizioaren desfilea, pregoia, tailerrak eta saltokien irekiera.

**12:00etan:** Ehiza-hegaztien erakusketa eta arku-tiraketak.

**17:00etan:** Azokako segizioaren desfilea, tailerrak eta saltokien irekiera.

**19:00etatik aurrera** Beti Argi banda, Laguntasuna Errondaila, 'Urrup' eta 'Tetratro' antzerki-taldeak eta Larrun Arri abesbatza.

**21:00etan:** Bide ipuinak eta Euskal Herriko elezaharrak

**23:00etan:** "Sidhe" folk taldearen kontzertua.

### Maiatzak 11, igandea:

**11:30ean:** azokako segizioaren desfilea, ehiza-hegaztien erakusketa, tailerrak eta saltokien irekiera.

**12:15ean:** Zaldi-ferraketa eta arku-tiraketak.

**17:00etan:** tailerrak eta saltokien irekiera.

**17:30ean:** Azokako segizioaren desfilea

**18:30ean:** idi-ferraketa.

## Errenta aitorpena euskaraz

Euskararen Aholku batzordeak egindako proposamenari erantzunez, Euskadiko Kutxak, Kutxak, Banco Guipuzcoano banketxeak eta Zugaztibi aholkularitza bulegoak errenta aitorpea egiteko aukera luzatu diete ordiziarrei. Aipatu banketxe eta bulego horietan kartel bana jarri dute agerian, aukera hori adieraziz. Ekainean bukatuko da errenta aitorpena egiteko epea.

## San Fermin zozketa

San Jose zahar etxerako dirua ateratzeko martxan da jada San Fermin zozketa. Maiatzean sartzearekin batera lehen talonarioa salgai jarri eta uztaila hasiera bitartean erosteko aukera izango da. Aurten ere antolaketa lanak Txindoki Tabernak egingo ditu.

## Igoera begibistan

Datorren denboraldian Ohorezko "b" Mailan izateko aukera handiak ditu rugby taldeak. Lehen kanporaketan Puerto de Santa Mariako taldea kanporatu ondoren Vigoko Unibertsitatearen aurka jokatu zuen joaneko kanporaketa eta emaitza bikaina eskuratu: 13-32. Itzulikoa igande eguerdian bertan jokatuko da Trebijano zelaian eta kanporaketa nahiko bideratua badago ere herritarren laguntza garrantzitsua izango da.

## Atleta gazteak

Eñaut Gereñu eta Odei Lopez, Txindoki Atletismo taldekoak, emaitza bikainak lortzen ari dira. Horren erakusgai dira Benicasimen lortutakoak. Eñautek 100 metroak 11"26an korritu zituen eta honekin Jubenil mailako Espainiako txapelketan aritzeko txartela lortu zuen. Era berean, Odeiek ere ez zen atzean geratu eta lau kiloko bola 15'80 metrora jaurti zuen. Kadete mailako Espainiako Txapelketan hartuko du parte Odeik.



## Futbolariak Katalunian

Joku maila ona erakutsi zuten Aste Santuan Katalunia aldean infantil eta kadete mailako futboleko herriko taldeek. Pineda de Mar-en jokatutako nazioarteko torneoan kadeteak bigarrenak izan ziren eta infantilak, berriz, hamaseigarrenak. Argazkian torneoan parte hartutako ordiziar jokalari eta teknikoak.

***Aitor Calvillo***

Zaldibia

# Sorkun, Eraso eta Sagarroi taldeen kontzertua maiatzaren 24an

Sorkun, Eraso eta Sagarroi taldeen kontzertuak izango dira maiatzaren 24an, larunbatean, Zaldibian. Kontzertuak gaueko 10,30etan hasiko dira. Sarrerak Zaldibiako taberna guztietan daude salgai 8 eurotan; baina, sarrera bertan erosiz gero 10 euro ordaindu beharko dira.

## San Isidro eguna

Urtero bezala, San Isidro eguna ospatuko da maiatzaren 15ean Zaldibian. Horretarako Zubi Buru elkartean bazkaria izango da; otordua alaitzeko bertsolariak eta trikitilariak izango dira.

## 'Zaldibiako Euskara' liburuaren aurkezpena maiatzaren 22an

'Zaldibiako Euskara. Bertako bizimodua, ohiturak eta pasadizoak' izenburua du Karmele Etxabe eta Larraitz Garmendia zaldibiarrek idatzi duten liburuak. Lan honen aurkezpena maiatzaren 22an izango da, arratsaldeko 19:30ean Kultur Etxean. Liburu honen 1000 ale argitaratuko dira eta herriko etxeetan banatuko dira.

## Zaldibiako web gunea

Laster izango dugu Zaldibiako web gunea martxan. Bertan herriari buruzko hainbat informazio topatu ahal izango dugu. Web gunearen aurkezpena maiatzaren 15ean, ostegunean izango da.

*Edurne Soraluze*

## Badatoz Gazte Festak!

Aurten ere, uztail aldean Gazte Festak ospatzeko asmoa dago. Baina guztiok dakizuen moduan horrelako jaialdiak antolatzeak guztion parte hartzea eskatzen du. Gainera, guztion gustukoak izateko guztion ideiak dira beharrezko. Modu egokian antolatzen bagara pasa den urtekoak baino hobeak izango dira aurtengoak. Parte hartzeko gogoa baduzue agertu gaur, ostirala, 21:30etan Kul-

# Udal hauteskundeetan lau zerrenda aukeran

Maiatzaren 25eko udal hauteskundeetan lau zerrenda izango dira aukeran, datozen 4 urteetako udal aukeratzeko.

Ilegalizatutako Batasunaren hutsunea betetzeko sortu zen 'Herriari leial' plataforma eta hautagai zerrenda, Auzitegi Gorenak baliogabetu egin du. Dena den, 'Herriari leial' taldetik jakitera eman dutenez, boto paperak kaleratu eta banatu egingo dituzte.

Aralar taldea ere izango da aukeran herrian. Goierrin herri bakarrean aurkezten da Aralar alderdi berria.

PP eta PSE-EE ere aurkeztuko dira Zaldibian.

Guztien izenak eta zerrendak dituzue jarraian.

**PP:**

Jose Manuel Aizpurua, Aparicio Yuste, Jose Triguero, Jesus Corrales, Maria Dolores Fuentes, Rafael Perez, Mercedes Gomez, Ricardo Olmo, Maria Rosario Miano,

**PSE-EE:**

Ramiro Tomás, Juan Manuel Gozalo, Carmen Corales Fouz, Ramón Ledesma, Emiliana García, María Iciar Badiola, Lorenzo Lázaro, Juana Lizarriturri, Marina Blanco.




*'Herria leial' taldeak maiatzaren 5ean egin zuen aurkezpena.*

**Herriari Leial:**

Jose Joaquin Zubeldia, Ramon Sukia, Joseba Erramun Murua, Argiñe Irizar, Felix Flores, Jon Joseba Irastorza, Maria Asunción Mariezkurrena, Pedro Maria Olano, Unai Matxain.

**Aralar:**

Francisco Maria Aierbe, Aitor Olano, Damian Garmendia, Ekaitz Aiertza, Haritz Beloki, Gabriel Luque, Jose Bernardo Garmendia, Jose Ramon Irastorza, Jose Antonio Murua.

# ARAMAKO TABERNA

Aramako plazan Tel.: 943 888 953



Eguneroko menua 7,20 euro

Asteburuko menuak 15 euro

Kaxuelitak

Pintxoak

Plater konbinatuak

Udako terraza

*Toki lasaia eta giro euskalduna*

# GARMENDIA

Egur tratamenduak

Cosbat

VAC VAC

Mallutz industrialdea, 25-26 ORDIZIA Tel. : 943 161 032 / Faxa: 943 160 842
E-mail: garmendia@garmendiatejas.com • www.garmendiatejas.com

## Aurreikusi



*Udaberriarekin batera pipia lanean hasten da eta zuk ez utzi zure altzarietara iristen*

*ORAIN DA GARAIA!*

Hezetasuna

Eguzkiaren eragina

Pipia

Barruko egurretan:
Habeak
Parketa...

Kanpoko egurretan:
Leihoak
Ateak
Jardineko altzariak...

## Sendatu

Pipiak jota dauden altzariak




BEROGAS
ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA
BEROGAR
SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK
vegasa
POLIURETANOZKO LEIHOAK
WENT
BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620
ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307


Euskaldunagoa? Oso zaila dago.
Independenteagoa? Ez da erraza.
Pluralagoa? Zein bezain plurala?
Hobea? Hoberena zen.
baina
hobetuko dugu
zure laguntzarekin
berria berri
Akzioei buruzko informazioa:
www.ektsa.net Tf: 635 733 385 · 635 733 386

# Iñaki Apalategi garaile bertsotan

Iñaki Apalategi beasaindarrak irabazi zuen pasa den apirilaren 26an Osinalde bertso sariketaren 32. edizioa. Sei bertsolari gazte aritu ziren kantari ohiko afariaren ostean, gazteen artean hain preziatua den saria eskuratzeko aitzakian giro polita ipiniz. Elkartea bete egin zen aurtengoan ere.

Irabazleaz gain Iñaki Gurrutxaga oriotarra eta Iñigo Eizagirre itziartarra lehendik Gabirian kantatuta zeuden, eta lehendabiziko aldiz finalean partaide ziren beste hiru kide izan zituzten lagun: Beñat Lizaso azpeitiarra, Oihana Bartra bilbotarra eta Miren Artetxe hendaiarra. Jokin Murua herritarrak aurkeztu eta gidatu zuen saioa.

Puntako bertso saioa entzun gabe geratu behar izan zuten entzuleek. "*Gora-behera asko eduki ditu saioak. Bizpahiru lagunek jardun dute ondo, baina gainontzekoek ez dute guztia ematea lortu. Erdipurdikoa orokorrean*", adierazi digu Jokin Muruak berak. Epaimahaiarekin bat etorri ziren entzuleak ere Apalategi bidezko garaile izan zela erabakitzerakoan; "*Seikotea kartzelako ariketara arte nahiko ondo ibili da, baina hor galdu dira, ez dute asmatu. Iñaki, ordea, saio guztian ibili da erregular, bera izan da onena*".

Miren Artetxeren kartzelako saioak jaso zuen, baita ere, entzuleen botoek izendatzen duten saria, herriaren garaikurra. Bertsorik onenarena, aldiz, Eizagirrek koplatan bota zuen batentzat joan zen. Sariak sari, beste behin lau haizetara zabaldu da sariketa honen izena, eta bertsogintzaren ardatz den honek biraka jarraitzen du lanean aurrera begira ere.



## Euskadiko errekorraren bila

Bada denboraldi bat Madariaga Barrena baserrian idi pare ikusgarria hazten ari direla. Kortatarrek idi probetarako jarrita dituzten abereen artean birekin beste ahalegin berezi bat egin nahi dute ordea: pisuan Euskadiko marka hautsi, inoiz hil den idirik handiena izanez.

Belgiar arrazakoak dira bi idiak, eta dagoeneko 1.600 kilo inguru ba omen da handiena. Udazken alderako eraman nahi dituzte hiltegira, baina bitartean beste berrehun bat kilo irabaztea komeni zaie, kanalean %30 galtzen baitute pisuan. Gaur egun Bizkaian daukate marka, 1.202 kilo kanalean.

## Kultura asteak aurrera darrai

Asteburu honetan ospatuko dira aurtengo kulturaldiko azken ekintzak. Gaur bertan, maiatzak 9, bertso musikatuak entzun ahal izango dira, 'Ai Martin!' ikuskizunarekin. Gaueko 9,30etan hasita elizako antzokian. Bihar larunbata, eskola umeek 'Eskale musikariak' antzezlana taularatuko dute, arratsaldeko 5etan. Amaitzeko igande eguerdian Goruntzen dantza emanaldia dago ikusgai, eta arratsaldean Txindatako musika ikasleen emankizuna.

Bestalde, argazki lehiaketa astebete luzatu da. Sarituen berri igande arratsaldeko kontzertuan emango da, baita banatu ere.

*Aimar Maiz*

## Labur-labur

- **San Isidro egunean,** maiatzaren 15ean, baserritarrek ospakizun berezia dute. Eguerdiko mezaren ondoren bazkaria antolatu da Ostatun. Iganderako izena ematea komeni da (943 88 79 13).
- **Aberri eguna** ospatu zen joan den apirilaren 20an herrian. Ekitaldi herrikoia egin zen eguerdi partean enparantzan.
- **Elizaren historia** eta azken urteetan burutu diren lanen memoria biltzen dituen txostena banatu da etxeetara, berrikuntza lanei amaiera emanez. Hori ospatzeko apirilaren 5 eta 6an Donostiako Uriarte gotzaina etorri zen bisitan.
- **Ur hornikuntzaren sarean obrak** hasi zituzten maiatzaren 5ean. Kaskoko depositutik herrigunera arteko zatia aldatu egingo da, lodiera handiagoko hodiak sartuz.
- **Hiru zerrenda** aurkeztuko dira herrian maiatzaren 25eko udal hauteskundeetara: Gabiria Hautesle Elkartea, Pagoeder Herri Plataforma eta PP.

## Pilota txapelketako emaitzak

Zumarraga eta Urretxu aldera joan dira aurten lau mailatan final guztiak. Gureek errepresentazio txikia lortu dute azkenean. Hona emaitzak:

- **Benjaminak:** David Perez-Xabier Erostarbe 18 / Jon Quina-Xabier Urzelai 14.
- **Alebinak:** Iñaki Kruz-Unai Jorge 18 / Joseba Angulo-Jon Agirre 10.
- **Infantilak:** Markel Oruesagasti-Iker Aleman 18 / Beñat Maiz-Iñigo Murua 10.
- **Kadeteak:** Iñaki Mendizabal-Xabier Dominguez 18 / Jon Alvarez-Jon Rodriguez 7.

## Legorreta

# Joxe Iturrioz kalea

Apirilaren 6an, Legorretako herriak omenaldia eskaini zion hainbat eta hainbat urtetan herri honen alde lanean aritu zen Joxe Iturrioz alkate ohiari. Ekitaldi honetan, bere izena eramango duen kale berria inauguratu zen.

Udaletxe aurrean agintari eta familiartekoak elkartu ondoren, kale berrirantz abiatu ziren txistulari eta dantzariez lagunduta, herriko bizilagunen presentzia nabaria zelarik. Hauen artean, Joxe Iturrioz udaletxean lanean aritu zen 16 urtetan zehar berarekin lan egin zuten alkate eta zinegotzi ohiak ere baziren. Orain gutxi herriko seme kutun izendatua izan den Patxi Ezkiaga idazlea ere bertan izan zen.

Joxe Iturriozen izena daraman plaka ezarri ondoren, herriko dantzariek aurreskua dantzatu zuten. Jarraian, Antton Amondarain eta Bixente Esnal alkate ohiek, eta baita egungo alkate den Xabier Iraolak, hitz batzuk esan zituzten Joxe Iturriozekin lanean igarotako garai zaharrak gogoratuz.

Ondoren, Maritxu Zelaia alargunak lore sorta bat jaso zuen, eta Xabier Iraola alkateak koadro bat eman zion, non Joxe Iturrioz Joxe Antonio Ardanza lehendakari ohiarekin agertzen den. Bertan, azken honek eskainitako hitz batzuk irakur daitezke.

Amaitzeko, bertara hurbildutako guztiek Agur Jaunak entzuteko aukera izan zuten. Herriko Irrintzi Alai dantza taldeak eskainitako soka-dantzarekin eta lunch batekin ekitaldia amaitzen zelarik.

### Dantzari txiki eguna

Maiatzaren 18an Dantzari Txiki eguna ospatuko da. Goizeko 12etan emango zaio hasiera, Beasaingo Aurtzaka, Zaldibiako Iztueta eta Legorretako Irrintzi Alai dantza taldeek herriko auzo ezberdinetan dantzatuko dutelarik. 13:00etan, dantzari guztiak herriko enparantzan elkartuko dira, eta bertan dantza ezberdinak ikusi ahal izango dira, ikurrin dantza eta aurreskua besteak beste. Eguerdiko 14:00etan izango da bazkaria, kanpoko haurrak bertokoen etxeetara joango direlarik.

Arratsaldean, berriz, 16:45etan, Txan magoaren ikuskizuna izango da. Eta, iluntzeko 7etan, globo aerostatikoan ibiltzeko aukera izango dute dantzan aritutako haurrek.

### Agenda

**Maiatzaren 16an,** ostirala, arratsaldeko 8etan, Esteban Elizondo Iriarte organojoleak eskainitako Salbador Deunaren Parrokiko Organoaren Berrinaugurazio Kontzertua izango da.

**Maiatzaren 17an,** larunbata, arratsaldeko 4,30etan, Judo eta Gimnasia Erritmiko erakustaldia emango dute herriko gaztetxoek Harripila Kiroldegian.

### Kronista berria

Ohartuko zinetenez, hemendik aurrera kronista berria izango da Legorretan. Zerbait iragartzea nahi izanez gero, deitu zenbaki honetara, eta galdetu Zelaiengatik: 660087319

*Zelai Amenabarro*



### Depuradora berria martxan

Apirilaren 30ean, Legorretako depuradora berria inauguratu zen. Hemendik aurrera, depuradora honen eginkizuna Oria ibaiaren urak garbi mantentzea izango da, Goierritik duen ibilbidean. Guztira 28 hilabete behar izan dituzte lanak amaitzeko, eta proiektua burutzeko 11,2 milioi euro behar izan ziren.




### EAJ-EA: Xabier Iraola alkategai

EAJ eta EA alderdiak elkarrekin aurkeztuko dira datorren maiatzaren 25eko udal hauteskundeetan. Xabier Iraola izango da alkategaia oraingoan ere. Zerrenda osatzen duten beste kideak hauek dira: Maria Izaskun Zubeldia, Juan Antonio Zubeldia, Juan Antonio Garin, Bakarne Garmendia, Jose Mari Lasa, Isabel Amondarain, Jose Manuel Etxeberria, Jexux Argiñarena eta Jose Ramon Mugerza. Kale Nagusia berritzeko 2. eta 3. faseak burutzea, babes ofizialeko etxebizitzak egitea, haur jolastokia, industria lurren luzapena, arau subsidiarioen berrikustea, gazte plangintza, euskara biziberritzeko plana, kirolaren antolaketa, 0-3 urteko haur eskola martxan jartzea... dira besteak beste EAJ-EAren programaren ardatzak.

### Alkarre: Nekane Iturrioz hautagai

Maiatzaren 25ko hauteskundeetara aurkezteko Legorretako Plataforma Abertzale eta Ezkertiarraren zerrenda plazaratu da. Herritarrek 120 sinaduraz babestu eta osatu dute Alkarre izenaz aurkeztu den bilgune hau. Hauteskundetarako Zerrenda honela osatu da: Nekane Iturrioz, Gaizka Gerriko, Beñat Jauregi, Olaia Eskitxabel, Ion Diaz, Jesus M. Aranzabe, Eider Otaegi, Mari Paz Garmendia, Nekane Maiz, Berra Lopez, Iker Oiarbide eta Agurtzane Iturbe. *"Ilegalizazio saiakera antzuak ez dute galeraziko Legorretar herriaren askatasun egarria. Ezkertiar eta abertzaleen eskubideak bermatuko dituen plataforma hauteskundeetara joango baita oztopo guztien gainetik"*, adierazi dute Alkarrekoek.

Beasain

# Garapen bidean dauden herrietan lan egiteko dirulaguntzak

Udaleko Gizarte-Ongizate batzordeak bultzaturik emango dira garapen bidean dauden herrietan lan egiteko dirulaguntzak. 100.095 Euroko dirulaguntza emango dute. Garatze bidean dauden herrietan egiten diren lankidetza jardueretan gazte beasaindarrek parte har dezaten lagunduko da beka bidez. Elkartasun balorea indartu eta aldi berean gure herriari lurralde horien egoera gazteen bidez ezagutaraztea da helburua. 18-35 urte bitarteko gazteei zuzendua dago. Gobernuz Kanpoko Erakundeentzat ere izango da dirulaguntzarik. Gipuzkoan kokatutako Gobernuz Kanpoko Erakundeek eta batez ere Beasainekin lotura dutenek, lehentasuna izango dute.

## Musika Eskolaren 25. urteurrenaren inguruko ekitaldiak

Aurten 25. urteurrena betetzen dutela eta honen inguruan ekitaldi desberdinak antolatu dituzte.

- **Erakusketak.** Euskal instrumentu desberdinak erakusten dizkigun erakusketa. Maiatzaren 12tik 18ra Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan. Era berean, Musika Eskolako historiaren argazkiak erakutsiko digun erakusketa ikusteko aukera ere izango da maiatzaren 19tik 24ra Udal Batzar Aretoan.
- **Musika kalean.** Musika Eskolako ikasleak Beasaingo kaleetan izango ditugu ikasi dutena guri erakutsiz maiatzaren 23an.
- **Juan Mari Beltranen kontzertua.** Maiatzaren 14an emango du kontzertua Usurbe Antzokian 18:00etan.
- **Musika Eskolako irakasleen kontzertua.** Maiatzaren 16an Udal Batzar aretoan 19:00etan Musika Eskolako irakasleak izango dira kontzertua emango dutenak.
- **Kantaldia herritarren partaidetzarekin.** Maiatzaren 17an, herritarren partaidetzarekin batera kantaldia izango da Loinazko San Martin Plazapean 19:00etan.

## Dantzari Txiki Eguna

Aurtzaka Dantza Taldeak antolatu du maiatzaren 11n ospatuko den Dantzari Txiki Eguna. Beasaingo kaleetan euskal dantzaz gozatzeko aukera izango da eguerdiko 12etatik aurrera. Hainbat herritako 4 eta 14 urte bitarteko dantzari txikiak izango ditugu ikusgai: Urretxuko Lurra, Ordiziako Jakintza, Errenteriako Ereintza, Zaldibiko Iztueta, Lazkaoko Oin-Arin, Legorretako Irrintzi Alai, Ataungo Otsoak, eta Beasaingo Ostadar eta Aurtzaka taldeek parte hartuko dute.

Bestetik, Leire Contreras Aurtzakako dantzakidea hil zela lehen urteurrena gogoratuz Aurtzakako helduen eta haurren taldeak ekitaldi bat antolatu du Maiatzaren 10ean arratsaldeko 7etan Loinazko San Martin Plazan.

*Nekane Altuna*



## Igartzatik: Mikel Olano hautagai

Maiatzaren 25eko udal hauteskundeei begira Igartzatik plataforma sortu zen. Hori posible izateko 500 beasaindarrek sinadura ematea behar-beharrezkoa zen. Herri plataformakoek ia 740 sinadura bildu zituztenez, zerrenda osatzeko moduan izan dira. Mikel Olano da zerrendaburua, gainerako 9ak hauexek: Kuki Lasa, Iñaki Apalategi, Eneko Bueno, Idoia Mendibil, Arrate Bastida, Andoni Antxia, Joseba Mujika, Josune Agirre eta Maria Milagros Izagirre.

Dena den, Estatuko Fiskaltzak baliogabetu egin zuen maiatzaren 1ean Igartzatik plataforma, Batasunaren jarraipena dela argudiatuz. Errekurtsoa aurkeztu dute plataformakoek eta informazio hau idazten ari ginela, behin-betiko erabakia hartzeko zuten epaitegiek. Dena den, Igartzatik kandidaturakoek aurreratu dutenez, hauteskundeetan parte hartzeko asmoa daukate.



## IU-EB: Iñaki Saldaña zerrendaburu

Maiatzaren 25eko udal hauteskundeetarako IU-EBk osatu duen zerrenda aurkeztu zuen joan zen apirilaren 30ean. Iñaki Saldaña izango da zerrendaburua. Gainerakoak hauek dira: Maria Estela Valencia, Julia Fernanda Hidalgo, Vicente Otegi, Baltasar Valencia, Tomas Parra, M. Esther Piñeiro, M. Adoración Heredia Simon, Ruben Zurbano eta Tania Leon.

*"Herriaren alde lanerako prest dagoen jende gazteak"* osatzen du zerrenda aurkezpenean Antton Karrera IU-EBko kideak adierazi zuenez. Gizarte justuago baten eta guztiontzat bizi kalitatea hobetzearen aldeko programa prestatu dute, elkarrizketa oinarri duela, udaletxean arazoei irtenbideak aurkitzeko prest egonez. Trafikoaren arintzea, gazteentzako etxebizitzak, gune berdeak, gazteentzat lokala, Beasain auzoetara hurbildu, kalitatezko eskola publikoa, homofobiarik ez.... dira programaren ardatzak.

# Segura

## San Isidro eguna
Maiatzaren 15ean, baserritarren egunean, arratsaldez buruhandiak aterako dira. 18:00etan San Isidro pala txapelketaren finala. Iluntzean, San Isidro eguneko meza kapillan. Ondoren, ardo partiketa, herri afaria eta trikitixa.

## Obrak elizan
Aste honetan hasi dira elizako bobedaren konponketak. Hori dela eta, bi hilabete inguruz itxita egongo da parrokia eta elizkizunak komentuan izango dira. Eliz sapaia 1680. urtean amaitu zuten.

## Futbola
**Asteburuko emaitzak: Errejionalak:** Ordizia 1-1 Segura. **Jubenilak:** Bergara 2-3 Segura. **Kadeteak:** Aizkorri 0-2 Ilintxa. **Infantilak:** Aizkorri 2-0 Lehengokoak.

**Asteburuan etxean: Errejionalak:** Segura-Mondragon (zapatuan, 15:30). **Jubenilak:** Segura-Behobia (zapatuan, 17:15).

## Labur-labur
● **Segurako prozesioa Indonesian.** Bertan oporrak pasatzen zebiltzan herritarrek ikusitakoa. Ostiral Santu egunez, Segurako Aste Santuko prozesio osoa eman zuten bertako telebista kate batean.

● **Bola txapelketa.** Imanol Agirrek, erregularitateko saillkapen nagusian 4. eta Goierrikoan 5. egin berri du.

● **Santa Kruzetako kirol emaitzak.** Toka txapelketan, gizonezkoetan Rafael Imaz izan zen hoberena eta emakumezkoetan Josune Antia. Txirrindulari proba, Caja Rural taldeko Ruben Zabaleta zegamarrak irabazi zuen.

● **Liburu eguna.** Irakurzaletasuna bultzatu asmoz, udalak antolaturik, ume eta gaztetxoentzat liburuak jarriko dira irakurgai, maiatzaren 10ean, eguerdi bitartean, plazan.

● **Herri Urrats.** Maiatzaren 11ko Iparraldeko ikastolen aldeko festarako autobusa antolatu du Elorri Kultur Elkarteak. Izen ematea Elorripen. Irteera, 8:30ean plazan.

● **Mendi irteera.** Kirol eskolarraren barne maiatzaren 18an Gorbeara. Herritar ororentzat irekia. Egunpasa izango da eta autobusa goizeko 8etan irtengo da plazatik.

● **Sanjoanak.** Hurrengo antolaketa bilera maiatzaren 20an, 19:00etan.

# 'Ura bizi itturri' ibilbide kulturala

## Ostegunean aurkeztu zitzaien herritarrei




Udalaren iniziatibaz, nekazal gunearen baliogarritasuna indartu nahirik, uraren inguruan sortu diren eta bizitzeko ezinbestekoak izan diren zenbait aktibitate ezagutarazi nahi dira: errotak, burdinolak, indarretxeak, lixibalekuak... Badira, ordea, urarekin erlaziorik ez izan arren, ibilbidean sartu diren elementuak: komentua, ermittak...

Egun hauetan jarri diren hamahiru panelek ematen dute ibilbideko elementuen berri. Zirkuitoak, Zerain portalean du hasiera, ondoren Zubi haundi, Uerdi, Liliriku, San Sebastian ermitta, Lixiba lekua, Armaola, San Andres ermita eta komentua pasata, Goiko portalean amaitzen da. Bi adar ere baditu, bada arrabiola eta bestea Beheko errebale.

Lanaren egileak, Ximon Goia eta Jabier Albizu izan dira, ilustrazioak Joxemari Telleriak egin ditu, diseinua Unai Altolagirrek eta koordinaketa udaletik egin da. Diru aldetik lagundu duen erakundea Goimen izan da eta aurrerago Goitur ere izango da.

Egileen esanetan, hau lehenengo partea besterik ez da. Orain inguru horren guztiaren txukunketa egingo da eta esku programa berezia ere aterako da informazio guztiarekin. Era honetan, jatorrizko kasko zaharrari osagarritasuna ematen dion kultur ondare bat berreskuratze bidean jartzen da, produktu turistiko bat ere izan daitekeelarik.

*Joseba Telleria*

# Udal hautagaiak




## 'Harresi' herri plataforma
Luli Telleria, Jaione Telleria, Iñaki Garaialde, Iñaki Montero, Jabier Albizu, Rafael Gerriko, Markel Telleria, Arkaitz Sodupe, Edurne Makazaga, Etor Telleria, Olatz Goenaga, Felix Lardizabal.



## EA-EAJ koalizioa
Mikel Areizaga, Joxe Mari Izagirre, Karmentxu Aristimuño, Manu Errezola, Jon Agirre, Marian Aristimuño, Xabier Telleria, Joxe Manuel Etxeberria, Felix Jauregi, Joxe Aristimuño, Miren Etxeberria, Sabin Aldanondo.

BIOK ZERBITZUAK, S/L

Goieri kalea, 12
ORDIZIA

tel.: 943 88 44 00
faxa: 943 80 51 27

GESTORIA

AHOLKULARITZA
FISKALA - KONTABLEA - MERKANTILA
LABORALA
EKONOMIKOA - FINANTZIEROA

Errenta aitorpenak egiten ditugu
Astelehenetik ostiralera
8:00 - 13:00
15:00 - 19:00
Epea:ekainak 25





Lan bertikalak S.L.

Kanaloiak
Bajanteak
Fatxadak
Pintura
Teilatuak
Tximiniak
...

Tfnoa.: 605 712 018
Ezkurdiategi Etxea ATAUN

Joxe Joan Gonzalez de Txabarrirekin

# Goierri beti aurrera.



Bozkatu eraginkor.

eusko alkartasuna

EAJ PNV

orkli, s.coop.




**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio, segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 80 50 30 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxa: (943) 16 08 23

## Ezkio-Itsaso

# Ezkioko jaiak

Atzo, maiatzaren 8an hasi ziren Ezkioko jaiak eta astebururuan izango dute segida. Jarraian duzue egitaraua:

**Maiatzak 9, ostirala:**

**20:30ean:** Mus txapelketa.

**21:00etan:** Gazte festa herriko aterpetxean.

**Maiatzak 10, larunbata:**

**16:00etatik 20:00etara:** Jolas parkea.

**17:00etan:** Toka txapelketa.

**Iluntzean eta gauean,** erromeria Lurtxurdio eta Izer trikitilariekin, aterpetxean gazte festa eta ordu txikitan, baratzuri zopa jana.

**Maiatzak 11, igandea:**

**11:00etan:** Meza nagusia, herrian hildakoen alde.

**12:30ean:** Herritarren arteko pilota partidua. Bikote bakoitzak bertsolari bana izango dute botillero lanak egiteko. Iñaki Apalategi eta Antton Fernandez bertsolariek hartuko dute lan berria.

Egun guztian zehar, Zabalegi anai-arreba trikitilariak izango dira giroa alaituz.

## 'Indartuz aurrera' atzera botata

Espainiko Fiskaltzak 'Indartuz aurrera' herri kandidatura baliogabetu du, legez kanporatutako Batasuna alderdia ordezkatzera datorrela argudiatuta. 'Indartuz aurrera' hautagai zerrenda Simon Idiakez, Jose Ignazio Larrañaga, Luis Mari Mendiguren, Segudno Arratibel, Jone Urain, Aitor Galods, Iñaki Idiakez, Maria Teresa Salturegi, Jose Ramon Unzurrunzaga eta Maria Dolores Garmendiak osatzen dute. Dena den, udal hauteskundeetan, 'Indartuz aurrera' taldearen botoa emateko aukera izango dela adierazi dute, boto paperak ateratzeko asmoa baitute.

Gainerakoan, beste bi hautagai zerrenda izango dira aukeran: PP eta Ezkio-Itsasoko Herrikideak. PPren zerrenda osatzen dutenak hauexek: Luis Jimenez, Maria Teresa Vozmediano, Julian Pedroche, Antonio Jose Campos, Mario De Los Rios eta Antonio Soria, Luis Felix Gomez.

Ezkio-Itsasoko Herrikideak taldearen izenean aurkeztuko diren hautagaiak, azkenik, hauek dira: Jose Ignazio Etxezarreta, Ander Unzurrunzaga, Prudenzio Mujika, Migel Angel Idiakez, Mikel Igartua, Maria Jose Telleria eta Pilare Mujika.

## Olaberria

# San Isidro eguna

Maiatzaren 15ean, San Isidro eguna, baserritarren eguna, ospatuko da.

Gaueko 9etan, ohiko meza izango da da jarraian, afaria, Arrieta jatetxean.

Afarira joan nahi duenak, maiatzaren 12a baino lehen eman behar du izena udaletxean. 31,55 euro kostatuko da afaria.

## 4 hautagai zerrenda

Maiatzaren 25eko udal hauteskundeetan lau zerrenda, lau aukera izango dituzte olaberritarrek, udalaren aukeraketan: PP, PSE-EE, Olaberriko Talde Independentea eta EAJ-EA koalizioa. Olaberriko Taldea baliogabetu egin zuen Espainiako Fiskaltzak. Dena den, Olaberriko Taldeak aurkeztutako errekurtsoa onartu egin zuen Epaitegi Gorenak. Orain arteko alkatea, Txomin Mendoza, EAJ-EA koalizioaren izenean aurkeztuko da. Lau zerrendatako lehenengo bostak hauek dira:



*Olaberriko Talde Independentea aurkezpen egunean.*

**PP:** Carlos Cabeza de Vaca, Urquiola Mariana De Palacio, Antonio Herrero, Migel Manuel Fernandez eta Juan Serrano

**PSE-EE:** Juan Pedro Risco, Maria Aranzazu Aranzabal, Justino Parra, Manuel Gonzalez eta Andres Moreno.

**Olaberriko Talde Independentea:** Jose Ignacio Alonso, Ainhoa Goiburu, Garikoitz Arrieta, Aitor Urkiola eta Artzeiz Mujika.

**EAJ-EA koalizioa:** Txomin Mendoza, Jose Bernardo Aldasoro, Iñaki Urteaga, Jose Antonio Medeiros eta Juan Jose Amoztegi.

ZUZENKI
AHOLKULARITZA
Abokatuak
Enpresen asesoria eta gestioa
e_txekin
www.txekin.net
Etxebizitzen salmenta: Legorreta Beasain Orendain
Tel/Faxa: 943 162 393 e.posta:zuzenki@euskalnet.net Elosegi, 16 LAZKAO

RENAULT
AGENTZIA
LAZKAO GARAJEA
Senpere Industrialdea
☎ 943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO

Lazkao

# Udal hauteskundeetako hautagaiak

### EAJ-PNV/EA

Felix Urkola, Igor Sarriegi, Ignacio Estensoro, Xanet Barreras, Arantxa Zumelaga, Ignacio Barandiaran, Amagoia Naldaiz, Kepa Goenaga, Javier Arrasate, Gorka Lamy, Martin Mari Aranburu, Iñaki Arruabarrena, Maria Milagros Madrazo, Mariano Altuna, Juan Agirrezabalaga eta Diego Gurrutxaga

### Areria

Irantzu Amundarain, Urko Irastortza, Maria Elena Agirrezabal, Joseba Hernandez, Francisco Javier Idiakez, Asier Herrero, Martin Aldasoro, Armando Velez, Garazi Andonegi, Mikel Begiristain, Maria Jesus Blanco, Juan Jose Urain, Jose Manuel Agirre, Maria Rosario Insausti, Andoni Tapia, Jon Agirre, Garbiñe Arruabarrena, Jose Antonio Lasa, Ainhoa Imaz, Isabel Agirre, Jesus Maria Etxeberria, Enrike Arratibel eta Bakarne Agirre.

### PSE-EE (PSOE)

Juan Manuel Serna, Alejandro Crespo, Milagros Alvarez, Alejandro Crespo, Benito Eloy Santibañez, Fernando López, Fernando Boada, Ignacio Pérez, Maria Josefa Méndez De Vigo, Jose Manuel Casado, Pedro Clemente, Jose Collado eta Maria Francisca Guenaga.

### EB/IU

Marco Antonio Muñoz, Francisco Javier Ayala, Maria del Mar Parra, Maximo Pajares, Pedro Jose Sanguino, Jesus Polo, Felix Hernandez, Aitor Sanguino, Jose Izquierdo, Jose Luis Ferro Sobrino, Maria Angeles Amaya, Oscar Muñoz eta Ramuntcho Robles.

### PP

Angel Olaso, Luis Lazkano, Alvaro Barambio, Araceli Esther Poza, Percibal Peter Manglano, Alvaro Rodriguez, Azuzena Martinez, Santos Capellán, Elena Fernandez, Jaime Fidel Fernandez, Salvador Ten, Dulce María Orjales, Martin Ferrer Abad eta Jose Francisco De España.

## Erregionalak kopan

Opor luze hauek igaro ondoren Lazkaok Antzuola taldea izan zuen aurkari pasa den igandean eta 1-0 irabazi zuen. Larunbat honetan, berriz, Ikasberri taldearen aurka jokatuko du. Hasiera batean, partidu zaila, baina aukerak oraindik badirenez, ikusi egin behar.

## Arruabarrena futbol taldea

Hauek ez dituzte hain opor luzeak izan. Aurreko astean kiroldegian aritu ziren lehian Urretxuko taldearen aurka. Orduan 3-1 emaitzarekin bukatu zen. Aste honetan, berriz, 3-3 egin dute Oreretara hurbilduz. Partidu gogorra izan zen eta golegileak Unai Ormazabal (2) eta Beñat Aranguren izan ziren. Jadanik txapelketa aurrera doa eta bi jardunaldi besterik ez zaizkie geratzen. Bukaera arte aritu beharko dira gogor eginez mailari eutsi nahi badiote, denak ere multzo batean baitaude. Hurrengo partidua hil ala bizikoa izango dute baina etxean jokatzeko abantaila dute. Beti ere jakin ikuslegoak asko laguntzen duela honelako egoeratan.

## Olain Irizarrek ezin izan zuen txapelketan aurre egin

Ilusio guztiak hankaz gora geratu ziren eguraldi txarraren ostean. Goiz eta arratsalde aritu ondoren ezin izan zuen inongo saririk lortu epaileen erabakitan. Derrigorrezkoak bi amuarrain baziren ere, errekaren zailtasuna ikusiz, bakarrarekin nahikoa izango zuen lehen fasea pasatzeko. Kasu honetan beste arrai mota bat harrapatu zuen baina hark ez zuen kontatzen. Azpimarratu eguraldiak zerikusi nabarmena izan zuela errekak urez gainezka eta elurretan baitziren. Hala ere izan duen tratua bikaina izan da eta horrek emango dio hurrengo txapelketarako motibazio handia.

*Aitor Tello*






*Orain arte bi hautagaitzen aurkezpena egin da, ezkerrean Areriako hautagaiak eta eskuinean Juan Manuel Serna PSE-EEkoa.*

# Mendi astea maiatzaren 12tik 17ra

Urriaren 5a gero eta hurbilago dugu eta giharrak martxan jartzeko garaia iritsi zaigu. Mendia gustuko dutenentzat edota ze soma dabiltzanentzat aukera ederra. Maiatzaren 12tik 17ra mendi astea izango dugu Lazkaon. Egunez eguneko ekintza guztiak ondoren azalduko dizkizuegu, baina maiatzaren 17ko ibilaldia zehatz-mehatz aipatu nahi genizueke.




## Egitaraua

**Astelehena 12:** 'Changtok 7045' diaporama. Koke Lasak. Maizpide euskaltegian, arratsaldeko 7etan.

**Asteartea 13:** 'Aralarko leizeak eta bertako bizitza ezagutuz' hitzaldia. Carlos Galanek eta Rafa Zubiriak. Udaletxeko batzar aretoan, arratsaldeko 7etan.

**Asteazkena 14:** 'Pirinioak mugarik gabe' bideoa. Mikel Saezek. Udaletxeko batzar aretoan, arratsaldeko 7etan.

**Osteguna 15:** 'Prestakuntza fisikoa mendiko jardueretan' hitzaldia. Andu Martinez de Rituertok. Maizpide euskaltegian, arratsaldeko 7etan.

**Ostirala 16:** '0-8000 hegaz' emanaldia. Joxe Ramon Agirre, Marronek. Plazako frontoian, gaueko 10etan.

**Larunbata 17:** 20 kilometroko ibilaldia. Herriko plazatik irten. Goizeko 8ak aldera. Eguerdian bazkaria. Arratsaldean eskalada, tirolina, zubi tibetarra, jumarrarekin igoera, rappela...

## Ibilaldia

20 kilometroko ibilaldia izango da. Edozeinek parte hartu ahal izango du, zahar nahiz gazte, lazkaotar nahiz kanpotar. Hilaren 17an, goizeko zortzi eta erdiak aldera irtengo gara herriko plazatik. Ibilaldian zehar umeentzako jolasak izango dira, beraz, taldeka egingo da. Gutxienez 3 kidez eta gehienez 5 kidez osaturiko taldeak. Bakarren batek talderik osatzeko aukerarik izango ez balu, guk geuk osatuko genituzke. Hamaiketakoa ere izango da eta bukatutakoan dutxatzeko aukera. Ibilbide osoa egitea ez da derrigorrezkoa, hortaz, makal antzean baldin bazabiltza erdia egitea nahikoa izango duzu.

Eguerdian bazkaria, 200 bat lagunentzat izango da lekua, noski, izena ematen duten lehenengoentzat. Eta arratsalde partean goizeko ibilaldian parte hartu duten guztientzat eskalada, tirolina, zubi tibetarra, jumarrarekin igoera, rappela, izotz eskalada. Anima zaitezte, egun bikaina izango dugu, ibiltzeko eta gozatzeko aukera paregabea.

Izena emateko ondorengo kopurua ordaindu behar da: Ibilaldia+arratsaldeko ekintzak+oparia. 3 euro. Ibilaldia+arratsaldeko ekintzak+bazkaria+oparia. 10 euro. Izen-ematea KUTXAko 21010381060011005253 kontu korrontean dirua sartzean egin beharko da, taldekide baten izena eta kopurua zehaztuz. Ordainagiria eskatu eta egunean bertan eraman. Maiatzaren 14a baino lehen eman izena.

Egunean bertan ere izena emateko aukera izango da, baina ez da bazkarirako lekurik ziurtatuko.

Harremanetarako: Amaia Oiarbide eta Jon Mikel Galparsoro. 943-805382

### Jaietako tonbolako zenbaki sarituak

**Janari lotea:** 360

**Txirrindularitzako kita sinatutako mailotarekin:** 593

**Txirrindularitzarako kita osoko mailotarekin:** 1481

## Autoaren zozketa

Honezkero bakarren batek saldu edo erosi du errifaren bat ala? Hala bada jakinaren gainean egongo zarete eta hala ez bada oraintxe emango dizuegu honen berri. KMK`03 dela eta errifa batzuk atera ditugu kalera. Zozketatuko den autoa Kia Carens LX a izango da. Errifak, merke askoak, bina eurokoak izango dira. Boletoak saltzeko irteera ugari prestatu dira, alegia, herriz herri ibiliko garela boleto saltzen, baina dei txiki bat egin nahi genizueke jende premian baikabiltza.

### Auto zozketaren irteerak:

**Maiatzaren 10ean,** Ordiziako erdi aroko azokara, egun osorako.

**Maiatzaren 11n** , Aralarko San Mielera, goizean.

**Maiatzaren 17an,** Aretxabaketako euskara egunera, goizean.




**Maiatzaren 18an,** Usurbilgo sagardo egunera, goizean.

**Maiatzaren 24an,** Urbilera, arratsaldean.

**Maiatzaren 25ean,** Xoxoteko erromeriara, egun osorako.

**Maiatzaren 31an,** Beasaingo jaietara, arratsaldean.

Egun hauetakoren batean inork joan ahal izango balu, mesedez deitu ikastolara eta jarri harremanetan Martin Agirrerekin. Zatoz, behar zaitugu!

# Zaldibiako euskara aztertu dute Karmele Etxabek eta Larraitz Garmendiak

**Orain dela bost bat urte hasi ziren Karmele Etxabe eta Larraitz Garmendia zaldibiarrak, euren kontura, unibertsitateko lan bat aitzakia hartuta, euskara azterketa egiteko hiztun zaharrenei grabazioak egiten. Ondoren etorri zen Zaldibiako Udalaren beka. 'Zaldibiako euskara. Bertako bizimodua, ohiturak eta pasadizoak' liburua dagoeneko osatu dute, aurkezpena maiatzaren 22an egingo da. Liburuarekin batera CDa banatuko da, hiztunen ahotsak biltzen dituena.**



*Ezkerrean, Larraitz Garmendia eta eskuinean, Karmele Etxabe. Biek ere Euskal Filologiako ikasketak egin dituzte.*

75 urtetik gorako hiztunak hartu zituzten oinarri, euskara azterketa egiteko. Auzoz auzo, emakumezko eta gizonezko kopuru bat zehaztu zuten. Hiztunak Zaldibia bertakoak izatea, bertan jaioak izatea kontuan hartu zuten. Horrekin batera, hizkuntza arautuarekin hartuemanik ez izatea.

Bost urtean herriko zaharrenen hitzak grabatu dituzte Karmele Etxabek eta Larraitz Garmendiak. *"Hasieran, unibertsitaterako lana zen eta azterketa dialektologikoa egitea zen asmoa. Orain, bekarekin, zabaldu egin dugu, soziolinguistika ikutuko datuak ere sartu ditugu. Zaharretatik gazteetara dagoen aldea..."*, adierazi digu Larraitz Garmendiak.

Bi zati nagusitan banatzen da liburua. Lehenengo zatia linguistika arlokoa da. *"Herriari buruzko datuak, azterketa dialektologikoa, lexikoa, esapideak, azentua, hika kasua, hizkera non kokatzen Euskal Herriko euskalkien mapan, herriko aldizkarirako gomendioak"*, sartzen dira. Bigarren zatian, bertako bizimodua, ohiturak eta pasadizoak jasotzen dira.

## Ondorioak

Ikerketa lan baten helburua izaten da ondorioak ateratzea. Kasu honetan, oraindik behintzat, ez da erraza ondoriorik ateratzea. *"Goierriko hizkeraren barruan, Ataun, Zegamakoa eta Zaldibiako bereizten dira. Zaldibiakoa berezia den ala ez ikusteko, Ordiziakoa, Beasaingoa, Gaintzakoa... nolakoa den ikusi beharko genuke. Baina Ataungoa, Zegamakoa eta orain Zaldibiakoa bakarrik daude aztertuta eta gainerakoak ez. Beraz, konparatzeko aukerarik ez dago. Gure hasierako asmoa zen Goierriko gainerako herriekin konparatzea baina azterketarik ez dago eta ezin gara gu herriz herri hasi"*, adierazi digu Larraitz Garmendiak.

Hala ere, orain Ordiziako euskara ikertzen hastekoa da bikotea. *"Bai, orain ikusiko da. Ordizia herri handiagoa da, jendea biltzeko toki bat. Agian ikusiko da Ataunek, Zegamak edo Zaldibiak nortasuna daukatela. Ezin da esan oraindik Zaldibia, Ordizia edo Beasaingotik ezberdina denik"*, zehaztu du Karmelek. Nolanahi ere, zenbait datu eta ondorio, ondoko orrialdean dituzue.

## Abiapuntua

Liburua kalean dago, baina argi daukate zaldibiarrek, lan hau abiapuntua besterik ez dela izan. *"Hasierako pauso bat da. Batez ere, esapideen eta hitanoaren kontuan, lantzeko gauza asko daude, batez ere eskolan. Zerbait prestatu beharko litzateke"*, dio Larraitzek.

Herri batzuetan gai horiek lantzeko unitate didaktikoak prestatu dituzte, Karmelek jakinarazi duenez.

Dena den, beste lan bat ere hortxe legoke: *"tarteko belaunaldian, gure gurasoen belaunaldian dago aldaketa eta hori ere aztertzeko lana da. Zaharrenena egin dugu, hiltzen ari baitira, baina aldaketa belaunaldi horretan dago. Lan asko dago egiteko"*.

## Gogoeta

Liburuaren beste helburu bat, zaldibiarrei zer pentsatua ematea ere bada. *"Zaldibian egoera ideala dagoela uste da, ez dagoela ezeren beharrik. Baina hori ez da hala. Hemen ez gara paradisuan bizi"*, zehaztu du Karmele Etxabek.

EGUZKI INPRIMATEGIA
Nafarroa Etorbidea, 9
☎ 943 88 94 82
BEASAIN

Mendizabal, C.B.
ITURGINTZA - BEROGINTZA
Tel.: 609 614 552 (Iñaki) - 659 644 221 (Xabi)
Txindoki, 23 - 4. ezk.
ZALDIBIA

# "Zaharrenek beste hitz egiteko modu bat daukate"



Gustura aritu dira Karmele Etxabe eta Larraitz Garmendia herriko zaharrenen kontuak eta hizkera entzun, jaso eta aztertzen. Izan ere, alde handi xamarra dago gaur egungo euskararekin alderatuz. Larraitzen esanetan, *"nabarmena da, zaharretatik gazteetara dagoen aldea"*. *"Beste hitz egiteko modu bat da. Agian arazo kulturala da, baina beste jario batekin, jatortasun batekin hitz egiten dute zaharrek"*, gaineratu du Karmelek.

Hizkuntza pobretzen ari dela esan al dezakegu beraz? *"Bai, hori garbia da. Zaharrek daukaten baserri munduko erreferentzia gazteok ez dugu ezagutzen. Mundua aldatzen doan eran normala da hizkuntza ere aldatzea. Baina badago hor gazteongan, esaerak gazteleraz sortzeko joera"*, aitortu digute.

Liburuan bertan, era grafikoan, ilustrazio bidez, zaharrenen eta gazteen arteko hizkera ezberdintasuna irudikatu du Antton Olariagak. Jarraian, zenbait adibide azaldu ditugu.

## Esapideak

Zaharrek erabiltzen dituzten esapide asko gazteek ez dituzte ezagutzen edo erabiltzen. *"Gazteok gainera askotan gaztelerara jotzen dugu"*. Adibide bat: 'Hazitako ez da inor geratzen'. Horrelako esapideekin 12 orri bete dituzte.




## Hitanoa

Hikaren kasuan, erabilera aztertu dute. Zaldibiarrek ea erabiltzen duten, norekin, noiz, zergatik, sexua, forma egokiak erabiltzen ote dituzten... *"Hitanoaren kasuan sorpresa eraman genuen. Zaharrek, hika erabiltzen ez zutela esaten zigutenean. Harrituta geldituta ginen. Baina gero ohartu ginen, beraiek konturatu gabe, hika erabiltzen dutela zenbait pertsonarekin edo zenbait momentutan"*.

12 urtetik beherako ume zaldibiarrek hitanorik ez dute erabiltzen Karmelek eta Larraitzek egindako ikerketaren arabera. Mutilek askoz gehiago erabiltzen dute, emakumezkoen aldean.

Hitanoaren azterketan, gaztelerazko esaldi batzuk jarri zizkien inkestatuei euskara itzultzeko, eta *"gazteek askotan gaizki erantzuten zuten; zaharrenek, ondo"*. Adibidez: 'lehen etorri denana, nere lehengusua honan' esango luke gazte batek. Zahar batek berriz, 'lehen etorri dana, nere lehengusua honan'. Zaharrek erabiltzen dute ondo eta jator.

## Azentua

Lana egiten hasi zirenean, ez zeukaten azentua aztertzeko asmorik baina *"gazteongandik azentu era ezberdina nabarmentzen genuen eta hori ere aztertu dugu"*.

## Idazkera

Idazkera ere aztertu dute Karmelek eta Larraitzek. Zaldibian argitaratzen diren aldizkariak oinarri hartuta. Honetan ondorio bat atera dute: *"euskara batuan idaztea ondo iruditzen zaigu, baina Zaldibiara moldatutako euskara batuan"*. Adibidez: 'sakabanaketaren areagotze berria'. 'Sakabanaketa gero eta handiagoa da' egokiagoa litzateke Zaldibiarako.

Liburuan, adibideak ematen dituzte Karmelek eta Larraitzek, euskaraz egokiago idazteko gomendioak emanez.

## Lehengo bizimoduak gogoan

Liburuaren azkeneko atalean, azkenik, elkarrizketatuen bizimoduko pasarte batzuk sartu dituzte. *"Galtzen ari den bizimodua gordetzeko ere aprobetxatu dugu"*, esan du Karmelek.

Hiztunen ahotsa ere entzuteko modua izango da, liburuarekin batera banatuko den CDan.

## ZINEA

**Goieniz:**

**Maiatzak 13:** 'Qué verde era mi valle!' (1941), 21:30etan, Beasaingo Usurbe antzokian.

**Maiatzak 15:** 'Pasión de los fuertes' (1946), 21:30etan, Beasaingo Usurbe antzokian.

**Maiatzak 20:** 'Centauros del desierto' (1956), 21:30etan, Beasaingo Usurbe antzokian.

**Maiatzak 22:** 'El hombre que mató a Liberty Balance' (1962), 21:30etan, Beasaingo Usurbe antzokian.

**ITSASONDO:**

**Maiatzak 9:** 'Torrente 2', 22:00etan, Ertotxen.

### Goieniz

**'Qué verde era mi valle!'**

*John Ford (AEB, 1941)*

John Fordek gizarte-gaiak jorratu zituen filme handien artekoa dugu hau; bertan Galesko meatzarien bizi-baldintzak gogor salatzen ditu. Morgan familia jo et ake ari da lanean beren seme-alabek haiek baino bizimodu hobea izan dezaten. Galesko XIX. mende amaierako herri baten bizimoduaren irudikapen bikaina.

## hitzaldiak

**BEASAIN:**

*Maiatzak* **15**, Dislexiari buruzko hitzaldia, Beasaingo ikastolan, 18:00etatik 19:30era.

**LAZKAO:**

*Maiatzak* **13**, 'Aralarko leizeak eta bertako bizitza ezagutuz' hitzaldia, Carlos Galan eta Rafa Zubiariaren eskutik, Udaletxeko batzar aretoan, 19:00etan.

*Maiatzak* **15**, 'Prestakuntza fisikoa mendiko jardueretan' hitzaldia, Andu Martinez de Rituertoren eskutik, Udaletxeko batzar aretoan, 19:00etan.

## ipuin-kontaketak

**BEASAIN:**

*Maiatzak* **20**, Ray Buenoren ipuin kontatze saioa, Kultur Etxeko Bibliotekan. 18:00etan, 4-6 urte bitarteko haurrentzat; 18:30ean, 7-9 urte artekoentzat.

## musika

**BEASAIN:**

*Maiatzak* **14**, Juan Mari Beltranen kontzertua, Usurbe Antzokian, 18:00etan.

*Maiatzak* **16**, Musika Eskolako irakasleen kontzertua, Udaletxeko Batzar aretoan, 19:00etan.

*Maiatzak* **18**, Briganthya musika taldearen kontzertua, 19:00etan.

**LEGORRETA:**

*Maiatzak* **16**, Esteban Elizondoren organo kotzertua, Elizan, 8etan.

**ORDIZIA:**

*Maiatzak* **9**, Poltsikoko Ikuskizunen barruan, kafe kontzertua: Fitter happier taldearen 'Unlock your imagination...' lana, Barrenan, 22:30ean.

*Maiatzak* **10**, Sidhe folk taldea, Garagartza plazan, 23:00etan.

*Maiatzak* **16**, Poltsikoko Ikuskizunen barruan, kafe kontzertua: The Band taldearen 'George Michael zuribeltzean' lana, Barrenan, 22:30ean.

## pailazoak

**LAZKAO:**

*Maiatzak* **10**, Takolo, Pirritx eta Porrotx, 18:30ean, kiroldegian.

## dantza

**BEASAIN:**

*Maiatzak* **11**, Dantzari Txiki eguna Beasainen. 12:00etan dantza saioak herriko kaleetan.

**LEGORRETA:**

*Maiatzak* **18**, Dantzari Txiki eguna. 13:00etan dantza saioa herriko plazan

## antzerkia

**BEASAIN:**

*Maiatzak* **9**, Txindoki-Alkartasuna Institutuko ikasleen Miuraren 'Tres sombreros de copa' lana, Usurbe antzokian, 19:00etan.

**ORDIZIA:**

*Maiatzak* **17**, Poltsikoko Ikuskizunen barruan, kafe antzerkia: Juanlu Escudero aktoreak 'Rie... soy un calaver' lana aurkeztuko du, Barrenan, 22:30ean

## ikus-entzunekoak

**LAZKAO:**

*Maiatzak* **12**, 'Changtok 7045' diaporama, Koke Lasaren eskutik, Maizpiden, 19:00etan.

*Maiatzak* **14**, 'Pirinioak mugarik gabe' bideoa, Mikel Saezen eskutik, Udaletxeko batzar aretoan, 19:00etan.

*Maiatzak* **16**, '0-8000 hegaz' diaporama, Joxe Ramon Agirre 'Marron'-en eskutik, Plazako pilotalekuan, 19:00etan.



## Txindoki-Alkartasuna Institutuko ikasleen atzezlana

Miguel Miuraren 'Tres sombreros de copa' da antzezlana. Bertako aktoreak Beasaingo Txindoki-Alkartasunako ikasleak dira, 2. BBB ikasten ari direnak. Irakasle pare batek ere parte hartzen dute. Zuzendaria, berriz, Francisco Garcia irakasle izan da. Bi emanaldi izango dira:

**Maiatzak 8,** Usurbe Antzokian, 11:30ean, Beasaingo eskola guztientzako saioa eskaini zuten.

**Maiatzak 9,** Usurbe Antzokian, 19:00etan.

## Goieniz zine kluba: John Ford-i 'Begirada'

Goieniz zine klubak maiatzan 'Begirada' zikloa antolatzen du. Aurten 5. edizioa izango da. Denboran atzera egiten du Goienizek eta garai bateko zine zuzendarien lanak edo genero ezberdinetako lanak pantaila handian eta jatorrizko bertsioan ikusteko aukera eskaintzen du.

Aurtengoan John Ford zine. zuzendariaren filmategiari egingo zaio begirada. Western generoan nabarmendu zen John Ford, baina hamarkada ezberdinetako lanak eta aukeratu dira, gai sozialak lantzen dituenak ere eskainiko dira. Goienizekoek, sei film aukeratu dituzte, 1935 eta 1962 urte bitartean egindakoak guztiak ere. John Fordek 125 film egin zituen. Maiatzaren 6an, 'El delator' filma eskaini zen eta 8an, 'Las uvas de la ira'. Maiatzaren 22ra bitartean ikusteko gelditzen diren beste 4 filmak ondorengoak dira:

**Maiatzak 13:** 'Qué verde era mi valle!', 1941. urtekoa.

**Maiatzak 15:** 'Pasión de los fuertes', 1946. urtekoa.

**Maiatzak 20:** 'Centauros del desierto', 1956an egindakoa.

**Maiatzak 22:** 'El hombre que mató a Liberty Balance', 1962an egina.

Ohi bezala, Beasaingo Usurbe antzokian izango da zine jardunaldia, gaueko 9,30etan. Sarrerak 3 euroren truke eros daitezke. Hori bai, ziklo osorako abonuak ere salgai daude, 9 eurotan.

### 8 urteko lana

Goienizek 8 urte daramatza ostegunetan filmak eskaintzen Beasaingo Usurbe antzokian. Zikloko 150 bat abonatu izaten dira. 200dik gora ikusle izaten da saioko.

Udazkeneko zikloa ere prestatzen ari dira. Ikusleen artean egiten duten iritzi biltzearen ondorioz bi filma dagoeneko prest dituzte: 'Ciudad de Dios' brasildarra eta 'Historias mínimas' argentinarra

## ikastaroak

**BEASAIN:**

*Maiatzaren 19tik 24ra,* informatika ikastaroa Txindoki-Alkartasuna Institutuan. 30-65 urte bitarteko emakumezko langabeentzat. Aurretik informatika ikastaroren bat egina dutenei zuzendua. 52 ordu, astelehenetik ostiralera, 15:00etatik 17:0etara. Izen emateak: 943880753 (Xabier Olano). Ikastaroa euskaraz egiteko aukera dago.

*Maiatzak 14 eta 21,* 15:30ean, Asmube Elkartean, Marta Imazek 'Festetako menua' sukaldaritza ikastaroa.

## erakusketak

**BEASAIN:**

*Maiatzaren 12tik 18a,* 'Euskal musika tresnak' erakusketa, Usurbe Antzokian.

*Maiatzaren 19tik 24ra,* Musika eskolako historiaren argazki erakusketa, Udal batza aretoan.

**ORDIZIA:**

*Maiatzaren 16ra arte,* Faustino Aranzabalen pintura erakusketa, Barrenan.

## GOARDIAKO FARMAZIAK

***Astegunetan:*** Jauregi (Santa Maria, 2 - Ordizia). 943 160949.
***Maiatzak 10-11:*** Laurnaga (Kale Nagusia, 4 - Ordizia). 943 881828.
***Maiatzak 17-18:*** Urbizu (Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 880232.

## mendi irteerak

**BEASAIN:**

*Maiatzak* **11**, Elgea mendizerrara, Aizkorri Mendizale elkarteak antolatuta.

*Maiatzak* **18**, Urederrera, Aizkorri Mendizale elkarteak antolatuta.

**ORDIZIA:**

*Maiatzak* **10**, San Millan - Ezkarai, Ordiziako Mendizaleak Elkarteak antolatuta.

*Maiatzak* **18**, Txindoki - Uzkoiti, Ordiziako Mendizale taldeak antolatuta.

# Debaldeko iragarkiak

## Etxebizitzak

### salgai

➡ Zaldibian pisua salgai. 100 m². Egongela, sukaldea, 3 logela eta 2 bainugela. Garajearekin. 943889258. 20:00etatik aurrera deitu.

➡ Itsasondon etxebizitza salgai. Sukaldea, egongela beheko suarekin, 3 logela, 2 bainugela, ganbara eta garaje itxia. Eguzkitsua. 676047880.

➡ Zegaman etxebizitza salgai. Herri erdi-erdian. Egoera onean. 943801141.

➡ Itsasondon etxebizitza salgai, garajearekin. 943886909.

➡ Zegaman etxebizitza salgai, garaje eta ganbararekin, Txarape auzoan. 666634666.

➡ Etxebizitza salgai Idiazabalen. Sukaldea, egongela, hiru logela, bi bainugela, bi terraza, ganbara eta garaje itxia. Egoera ezinhobea. 677595814.

➡ Etxebizitza salgai Beasaingo Garmendia Otaola 5ean, 3.solairua eskuina. 112 metro koadroko azalera erabilgarria, eta 24 metro koadroko ganbara. 943881612.

➡ Pisua salgai Ataunen. Ekonomikoa. 943180106.

➡ Korellan (Nafarroa) etxea salgai. 646971488.

### errentan hartu

➡ Etxea alokatu nahi da Lazkaon edo inguruan. 676049931.

### errentan eman

➡ Altzairuz hornituriko pisua alokatzen da Zegaman. 943800439.

➡ Etxea alokatzen da Zegaman. 650752894.

➡ Urbasako mendilerroan etxea alokatzen da asteburu, zubi eta oporretarako. 9434533981.

## Negozioa

### errentan eman

➡ Taberna alokatzen da Idiazabalen. 943187081.

➡ Estetika kabina handia alokatzen da Beasain erdian dagoen ileapaindegi batean, estetika eta masaje lanak egin eta bestelako terapietarako. Interesgarria. 943883252.

## Garajeak lokalak

### salgai

➡ Beasaingo Erauskin kalean 100 metro koadroko garajea salgai. Prezio interesgarria. 603931449.

➡ Beasaingo Nafarroa Etorbidea 33 kalean 30 metro koadroko lokala salgai. Beharrezko instalazioak dauzka, eraikuntza eginda dago. Prest irekitzeko. 943882106 / 943806012.

### errentan eman

➡ Idiazabalen, Kale Nagusian, garaje-plaza alokatzen da. 655703101.

➡ Lazkaon lur azpiko bi garaje alokatzen dira Jose Lasa kalean. Iluntzean deitu. 943885574.

## Galdutako objektuak

➡ Martxoaren 24an, Lazkaomendin mastin arrazako txakurra desagertu zen. Txuria eta belarri marroixkak ditu. Txuri izenez erantzuten du. 650132272 - 943180352.

## Mintza praktikak

➡ Mintza praktikak egiteko Goierri edo inguruko pertsona bat bilatzen da. Nik frantsesa praktikatuko nuke, eta euskara edo gaztelerazko mintza praktika eskainiko nioke. 943180389. 20:00etatik aurrera deitu. Asier.

## Ibilgailuak

### salgai

➡ Volkswagen Passat GL salgai. SS-AK. Egoera onean. 627080413. Jabi.

➡ Opel Ascona 21.OI GT salgai. 5 atekoa. Ondo zaindua. 679861448. Jon.

➡ Piaggo NRG Extreme motorra salgai. 652748319. Gauetan deitu.

➡ Ford Escort 1.6. G.T salgai. SS-AF. Prezio onean. 650132272.

➡ Opel Ascona 21.OI GT salgai. 5 atekoa. Ondo zaindua. 679861448. Jon.

➡ Benimar markako karabana salgai. Ekonomikoa. 943028494.

➡ Kawasaki GPX markako motorra salgai. 600 c.c.koa. 900 euro. 605712473 / 943766401.

➡ Peugeot 309 Vital markako autoa salgai. SS-AP. Garajean egona. 2.400 euro inguru. Prezio negoziagarria. 609030621.

## Animaliak

### salgai

➡ 3 txakurkume salgai. 943885831.

➡ Ehizerako hezi daitekeen txakurkumea salgai. Arra. 4 hilabete, Cocker Spaniel. 170 euro. 658747901.

➡ Bordes Collie arrazako txakurkume arra salgai. 679861448. Jon.

➡ Bi behi lomousin kartadunak salgai. Bigarren umezkoak. 656717932.

➡ Cocker Spaniel arrazako txakurkume arra salgai. Hiru hilabete, txipa eta bakuna guztiekin. 655703102.

➡ Hazitarako zaldi 'kaneloa'salgai. Deitu gauetan. 943888682.


ZALBIDE
TOLARE SAGARDOTEGIA

✗ Sagardoa txiritik irailaren bukaera arte
✗ Asteburuetan eguerdi eta iluntzetan
✗ Arrainean berezitasuna
✆ 943 65 21 76 ABALTZISKETA

o s k a r b i
o i n e t a k o a k

Tel. 943 88 41 04 kale Nagusia 34 BEASAIN
Tel. 943 88 19 44 kale Nagusia 25 ORDIZIA

## Bestelakoak

### salgai

➡ Egongelako altzariak salgai: armairua, mahai txikia, 3 plazako sofa bat eta plaza bakarreko bi sofa. Prezio negoziagarria. 943085147. 22:30etik aurrera deitu.

➡ Egurrezko ate onak, 7, salgai, prezio onean. 943-889435.

➡ Tabernako basoak garbitzeko aparatua eta frijitzaile industriala salgai. Berriak daude. Prezio ona. 659291596. Intza.

➡ Errepideko bizikleta salgai, Colnago markakoa. Oso gutxi erabilia. 656701024.

➡ Erabili gabeko bi somier salgai 84 eurotan. Interesatuek deitu 943885839 telefonora. Deitu gaueko 9etatik aurrera.

➡ Karreratako txirrindua salgai. Koadro saritu neurria 54. Urdin kolorea. Osagarriak: Shimnao 600. Gurpilak: Rigida-Shimano 600. 7 pinoi. Kubierta estuak. Pedal Shimano automatikoak. 300 euro. 651705011. Ion.

➡ Yasmin de Takamine etxeko kitarra elektro akustiko beltza salgai. Egoera oso onean. 540 euro. 658751647.

### erosi

➡ Auñamendi entziklopediko ale banakoak erosiko nituzke. 943117355.

➡ Bigarren eskuko eskaladarako materiala erosiko nuke. Sokak, arnesa eta expresak. 659034934.

### errentan eman

➡ Garraio titulua alokatuko nuke. 645715578.

## Lana

### eskaerak

➡ Tabernan, sukaldean lan egiteko jendea behar da Ordizian. Datuak bidali Ordiziako 134 posta-kutxara.

➡ Neska edo emakume euskalduna behar da Beasainen etxeko lanak egin eta haur bat zaintzeko. 943085602.

➡ Ordizian taxi plaza salgai. 943881515 / 627862306.

➡ Promozioetarako langileak behar dira, 18 urtetik 45 urte bitartekoak. Soldata lehiakorra. 616941892.

➡ Neska edo emakume bat behar da sagardotegi batean lan egiteko larunbat iluntzetan eta igande batzuetan. 615700408.

➡ Goierri Erreabilitazio zentrurako fisioterapeuta behar da. 943881271.

### eskaintzak

➡ Goizetan 4-5 ordu lan egiteko emakume euskalduna eskaintzen da, etxeko lanak egin, haurrak zaindu edo adineko jendea zaintzeko. 660759207.

➡ Goizetan tabernan batean, haurrak zaintzen edo etxeko lanak egiten lan egingo nuke, Goierri inguruan. Josune. 650040753.

➡ Emakume bat eskaintzen da orduka lan egiteko. 943180426.

➡ Neska eskaintzen da arratsaldeetan garbiketa lanetan aritu edota pertsona helduekin egoteko. 647896460.

## Laskorain, 8 - behea — Tolosa

**Tolosa eta Hondarribia.** 10 plaza Udaltzaingorako. Baldintzak: Eskola graduatua. Presta zaitez. Adozek informatzen du. 943444509.

**Suhiltzaileak.** Deialdiak berehala. Euskal Herriko parkeetan lan egiteko. Lan baldintzak ezin hobeak. Presta zaitez. Eskola Graduatua. Adozek informatzen du. 943444509.

**Basozaina.** Euskal Herriko Parke eta Naturaletan lan egin ezazu. Deialdiak maiz. Baldintzak: Eskola graduatua. Presta zaitez. Adozek informatzen du. 943444509.

**Garraiolaria.** Garraiolari gida-baimena. Lor ezazu. Presta zaitez. Adozek informatzen du. 943444509.

**Justizia Ministeritza.** Euskal Herri osorako eskaintza publikoa. 42 laguntzaile, 10 agente eta 23 Justizi Ofizialak. Presta zaitez. Adozek informatzen du. 943444509.

**Aire kontrolatzaileak.** Aireportuan. AENAk konbokaturiko 250 plaza. Baldintzak: Erdi-mailako ingelesa eta Diplomatura edo Lizentziatura. Adozek informatzen du: 943444509.

**Autoeskolako gida-baimena.** Trafikoaren deialdiak laster. Lan baldintzak ezin hobeak Presta zaitez. Adozek informatzen du. 943444509.

**Liburutegi laguntzaileak.** Udaletxeetan, unibertsitateetan, artxiboetan... lan egiteko. Presta zaitez. Adozek informatzen du. 943444509.

**Administrariak.** Laguntzaileak nahiz teknikariak. Udaletxeetan eta erakunde publikoetan lan egiteko. Laster deialdiak. Baldintzak: eskola graduatua. Presta zaitez. Adozek informatzen du. 943444509.

**Langai**

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritza

**Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**
**Goierriko Herrien Ekintza**
**943 884 401**

**LORAZAINA**
Goierrin. Erref. 101305/1

**MANTENIMENDU MEKANIKORAKO INGENIARIA**
Beasainen. Erref. 100979/3

**SOFTWAREaren GARAPENERAKO INGENIARIA**
Beasainen. Erref. 100978/3

**TEKNIKO KOMERTZIALA**
Tolosan. Erref. 100830/5

**APAL HORNITZAILEA**
Goierrin. Erref. 100702/2

**APAL HORNITZAILEA**
Goierrin. Erref. 100695/2

**CATIA V4/V5 INGENIARIA**
Gasteizen. Erref. 100643/3

**SUSTATZAILEA**
Ordizian. Erref. 100482/4

**AROTZA, AROTZERIA METALIKOA**
Tolosaldean. Erref. 99863/7



# Beasaingo Musika Eskolako akordeoi orkestra Galesen, 1983an

**Zutik:** Nekane Arratibel, Miren Eskarne Kortaberria, Amaia Garmendia, Iñaki Aierbe, Esther, Ana Aizpurua eta Karmele Aiarza.

**Makurtuta:** Arantxa, Aitor Garmendia, Julen Arina, Ugutz Agirre, Peio Ramirez eta Maria Rosario Balerdi.

**Atal honetan argitaratzeko argazki zaharrak behar ditugu. Deitu 943-889612 telefono zenbakira. Behin erabilitakoan, argazkiak itzuli egiten dira.**

KAXO
KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN
✆ 943 02 73 68 Faxa: 943 02 79 59
San Inazio, 5 BEASAIN

Blues Brothers
BEASAIN

OSKARBI ARROPA GARBITEGIA
Arropa industrial mota guztiak
Ostalaritza
Bezeroaren instalazioetan bilketa eta entrega
Partikularrentzat mantak, edredoiak, buzoak...
Leku-Eder etxea- Senpere auzoa-Lazkao
Tel.: 943 88 40 90 - 669 872 261

ZUHAIZKI S. A. L.
ZURGINDEGIA
✗ LEIHOAK, ATE-AK eta abar
✗ ESKAILERAK NEURRIRA
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

TXIMA'S ILEAPAINDEGIA
Zatoz eta aurkitu zure estiloa
Tratamenduak
Korteak
Koloreak
Moldeatuak
ESTETIKA ZENTRUA
Biodepilazioa:
Zirkulazioarentzat, barizentzat eta hanka nekatuentzat onuragarria
Ilea ahultzen du
Azala garbitzen du
Aurpegiko tratamenduak produktu naturalekin
Oriamendi kalea, Etxuri etxea BEASAIN Tel./Faxa: 943 88 32 52

IKASTEK AKADEMIA
www.ikastek.net
ikastek@ikastek.net
Joan Iturralde, 5
BEASAIN
☎ 943 160 120
KURTSOA GAINDITZEKO GARAIA!
Etorri Ikastek akademiara!
Lehen Hezkuntza, DBH, Moduluak, Batxilergoa, Unibertsitatea
UDA IKASTAROAK
Eman izena orain!
✖ Tailerrak, irakurmena, idazmena, matematika
✖ Eskolako lanak
Informa zaitez!


TLH
Goi Mailako
Tolosaldea L.H. Institutua
Q
Euskadi
AENOR
ER
Empresa Registrada
ER-0527/2/98
ESKAINTZA AKADEMIKOA
ARAUTUA
Goi mailako zikloak (euskaraz)
• Mekanizazio bidezko produkzioa.
• Eraikin eta prozesu-instalazioen mantenimendua eta jartzea.
• Metal-eraikuntza.
• Erregulazio eta kontrol-sistema automatikoak.
• Administrazio eta finantzak.
• Informatika-sistemen administrazioa.
Erdi mailako zikloak (euskaraz)
• Mekanizazioa.
• Soldadura eta galdaragintza.
• Ekipo eta instalazio elektroteknikoak.
EZ ARAUTUA
• Langileen etengabeko formakuntza.
Kualifikazio profesional sistemako ikastaroak. Doan.
Mekanika, soldadura, elektrizitatea, informatika, administraritza.
• Langabetuen formakuntza.
Telefonoak: 943 651 147 (Josune) 943 650 664
E-mail: idazkaritza@tolosaldea.com
Webgunea: www.tolosaldea.com
AURREMATRIKULA
Ekainaren 2tik 11ra
MATRIKULA EPEA
Ekainaren 30etik uztailaren 4ra
INSTITUTU HONEN BIDEZ IKASLEEK LANA AURKITZEN DUTE
• Iaz Ikasketa Teknikoak amaitu zituzten ikasleetatik %100 jadanik lanean ari dira.
• Lankidetza hitzarmenak 150 enpresekin.
Ikastetxe honetan kalitatea ez da moda bat, gauzak hobeki egiteko era baizik
7 urte ISO 9002 kalitate sistemarekin eta
2 urte zilarrezko Qrekin irakaskuntza hobetzen

NAGUSIA, 40 - C.P. 20200 - BEASAIN - TEL/FAX: 943 88 68 51

amets
ATSEDENERAKO SISTEMAK



# Beharko duzulako

## hau izango da zuretzat opari aproposena

Zure ohearen aurrekontu zehatza eskatzera bazatoz, honako iratzargailua oparituko dizugu, badakigulako, swissflex ohe bat aukeratuz gero, benetan lo egitea zer den ondo ikasiko duzula. Benetan beharko duzu.

Eskaintza honek iratzargailuak bukatu bitartean bakarrik balio du



